

uztarria

hrr [AZPEITIKO HERRI ALDIZKARIA]

2004ko azaroa ▶ 56. zenbakia

KLIK ▶ Sagardoa egiteko garaia da; kupelera bidean



MIKROA OFF

LAXARO AZKUNEK LOIOLA IRRATIA UTZI DU, HAN 21 URTEAN ARITU ETA GERO

Itsasi Euskal Kultur Elkarteak ▶ Azpeitiko Argazki Elkarteak ▶ Azpeitiko AEK Mikelats Euskaltegia ▶ Azpeitiko Euskal Herrian Euskaraz (EHE) ▶ Erriarraitz Bertsozale Elkarteak ▶ Literaturza Taldeak ▶ Lakrikun Antzerki Taldeak ▶ Azpeitian Gazteok Zér?! ▶ Kitarrista Taldeak ▶ Orkatz Kultur Elkarteak ▶ Natatxa Films ▶ Urrestillako Triku Musika Elkarteak ▶ Zubi Zarreko rock taldeak ▶ Sahatsa Dantza Taldeak ▶ Zutoin Guraso Elkarteak (Urola Ikastola Azkoitia-Azpeitia BHI) ▶ Zutarri Guraso Elkarteak (Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai) ▶ Ikasberri Azpeitiko Ikastola ▶ Iraurgi Ikastetxeko euskara normalkuntza taldeak ▶ Iraurgi Ikastetxeko enpresa batzordeak ▶ ELAren eskualdeko batzordeak ▶ LAB Kosta Urola eskualdeko idazkaritzak ▶ Gipuzkoako EHNE ▶ Lagun Onak Mendi Bazkuna ▶ Lagun Onak Txirrindulari Elkarteak ▶ Iraurgi Saski Baloiz Taldeak ▶ Lagun Arteak Eskuderiak ▶ Amue Kirol Elkarteak ▶ Ikasberri Pilota Elkarteak ▶ Habea udal plataforma ▶ Zaharra Berri Alde Zaharreko Bizilagunen Elkarteak ▶ Azpeitiko Txolarteko begiraleak ▶ Azpeitiko Emakume Taldeak ▶ Azpeitiko Bai Euskal Herriari ▶ Karmelo Otaegi ▶ Xabier Euzkitze ▶ Laxaro Azkune ▶ Estitxu Elduaia ▶ Joxe Luis Aizpuru ▶ Enekoitz Esnaola ▶ Joxean Agirre ▶ Iban Arregi ▶ Koldo Aldalur ▶ Leire Aramendi ▶ Oihana Elduaia ▶ Mailo Oiarzabal ▶ Asier Legarda-ereño ▶ Nerea Uranga ▶ Ihintza Agirretxe ▶ Ion Aranburu ▶ Ainitze Oruesagasti ▶ Amaia Mendizabal ▶ Kepa Urbietak ▶ Ander Ugarte ▶ Mikel Azkune ▶ Patxi Azpillaga ▶ Kike Zurutuza ▶ Mikel Arregi ▶ Urtzi Oteiza ▶ Leire Larrañaga ▶ Bixente Aldalur ▶ Imanol Lazkano ▶ Joxe Lizaso ▶ Joxe Agirre ▶ Jose Luis Gorrotxategi ▶ Xebaxtlan Lizaso ▶ Leire Ostolaza ▶ Jokin Uranga ▶ Beñat Lizaso ▶ Haritz Etxeberria ▶ Juan Joxe Eizmendi 'Loidisaletxe' ▶ Imanol Elias ▶ Pako Aristi ▶ Jose Luis Otamendi ▶ Fernando Morillo ▶ Xabier Borda ▶ Iñaki Bergara ▶ Alaitz Olaizola ▶ Nagore Aranburu ▶ Idoia Uranga ▶ Martin Alegria ▶ Itziar Elias ▶ Boni Alegria ▶ Olatz Prat ▶ Josu Goenaga ▶ Arantzazu Azpillaga ▶ Aitor Arruti ▶ Josune Etxeberria ▶ Josu Uranga ▶ Jone Urkizu ▶ Ainara Betegi ▶ Garikoitz Mendizabal ▶ Amaia Garmendia ▶ Manex Beristain ▶ Aitor Aranguren ▶ Ainhoa Odriozola ▶ Jon Berdejo ▶ Josu Bereziartua ▶ Leire Agirre ▶ Mikel Aranburu ▶ Mikel Labaka ▶ Olatz Ieregi ▶ Aitor Zulaika ▶ Kepa Peñagarikano ▶ Joseba Albizu ▶ Manuel Agirretxe ▶ German Zelaia ▶ Jantxo Sagardogi ▶ Ikasberri Azpeitiko Ikastolako langileak (Jaione Caballo, Lurdes Gurrutxaga, Aitziber Solana, Arantxa Isart, Ainara Bidal, Nerea Elola, Rebeca Urruzuno, Idoia Gallastegi, Janire Robledo, Arantxa Etxaniz, Tere Alberdi, Gemma Larrañaga, Lurdes Serrano, Irene Valverde, Alaitz Amezua, Mila Muruamendiaraz, Maite Segurola, Olatz Larrea, Aitor Azpillaga, Lorea Mujika, Arantxa Olazabal, Xanet Esnaola, Ane Maite Goñi, Jon Bereziartua, Arantxa Bidezabal, Edurne Muñoz,

urola-kostako

hitz

Azpeitiko gehiengo sozialak Udalak diruz lagun dezala eskatu du

(esparru askotakoa
ia 50 elkartek eta
150 herritarrek)

Marijo Ezama, Mikel Agirre, Eli Azkue, Eider Zuriarrain eta Alberto Lizeaga) ▶ Urola Ikastolako irakasle eta langile taldea (Juaninazio Azkue, Xabier Arrieta, Jose Ramon Beristain, Karmen Bastida, Joseba Mendia, Joxin Rekondo, Mikel Alberdi, Mikel Sarasua, Rakel Etxaniz, Miren Lasa, Pili Agirre, Xabier Astigarraga, Elisabet Etxaniz, Aintzane Zubeldia, Miguel Jimenez, Aitor Agirre, Onintza Etxeberria, Maje Larrañaga, Eugenia Hurtado, Ane Aritzeta, Joxin Iturriotz eta Iñigo Olabarria) ▶ Mari Lurdes Gurrutxaga ▶ Lurdes Aristimuño ▶ Eneko Etxeberria ▶ Xabier Aranbarri ▶ Josu Azpillaga ▶ Miren Odriozola ▶ Iñaki Errazkin ▶ Aitziber Aizpuru ▶ Uranga ▶ Iñaki Martinez ▶ Jaione Unanue ▶ Juan Mari Garagarza ▶ Luis Mari Garagarza ▶ Aizpuru ▶ Mari Karmen Arozena ▶ Izar Arregi ▶ Izaro Alkorta ▶ Betegi Eizagirre sendia ▶ Lazkano Iribekanos sendia ▶ Maite Urbistondo ▶ Ainara Pie de Hierro ▶ Estibalitz Karrera ▶ Ainitze Bikendi ▶ Ines Larrañaga Gabilondo ▶ Miguel Urbietak ▶ Arantxa Astigarraga ▶ Igor Martija ▶ Pakita Albizu ▶ Roxali Arrizabalaga ▶ Joxe Aranburu ▶ Monika Bayon ▶ Libe Aranburu ▶ Laida Iturria ▶ June Iturria ▶ Ino Corvos ▶ Maurizio Iturria ▶ Mari Karmen Borda Egia ▶ Lourdes Agirrezabal ▶ Josu Badiola Uzin ▶ Begoña Elias Olazabal

urola-kostako hitza

Udalak diruz laguntzeko arrazoiak:

- ▶ euskarazko egunkaria delako, euskaltzalea
- ▶ kalitatekoa eta plurala delako
- ▶ azpeitiarrentzat zerbitzua eta plaza delako
- ▶ euskarazko komunikabide indartsuak behar ditugulako
- ▶ azpeitiarrek **hitz**a nahi dutelako (2.200 ale banatzen dira egunero herrian)



Hiruko txikian ▶ Iban Arregi

“La calle es mía”

1 “Azpeitiko Udala. Alkatearen agindua. Debeakututa dago pasabide honetan biltzea” dioten kartela jarri du Udalak Azkargorta tintoreria atzeko pasabidean. Boterearen gehiegikeria ikaragarria iruditzen zait. Baten bat zaratagatik-edo kexatuko zen, eta izango du igual horretarako arrazoirik, baina instituzio batek ezin du dena arautu, ezin du dena debekatu; ezin du, horrela eta horrela, biltzeko eskubidea urratu. Hori Fragak egiten zuen, “la calle es mía” esaldi famatua esan zuenean.

2 Izan ere, Azpeitian ere kaletik bidali nahi gaituzte. Gaur egun ia-ia delitua da kartel bat jartzea, edozein momentutan azaltzen zaizkizulako ertzainak identifikazio eske. Gaur egun ia-ia burutik pasatu ere ez zaigu egiten bariantean *sentada* bat egitea; lehen, *kargatzen* hasi aurretik, bitan-edo abisua ematen zuten ertzainek. Gaur ez. Errepresioa eta kontrol soziala inork uste ez genuen lekura inoan ditu PPK, eta Azpeitian ere sumatzen da. Ertzainek sumatu arazten dute.

3 Garmendipe inguruko kirol-gunearen inguruan sortu den polemikari tiraka, egoera ez-erreal bat: Garmendipen, kirol-gunearen alboan, merkatal-gune handia. Dendak eta tabernak, batik bat. Alboan, Inox diskoteka. Orduan, kaleko tabernek, parte zaharrekoek, txikiteo garaia harrapatuko lukete, eta 01:30erako itxi egin behar, *por orden de la ley*. Hartara, gaztea kaletik *afueratara* gauean. Egoera ez da erreala, oraingoz, Azpeitian. Baina Azpeitia beti Donostiari begira omen...

uztarria▶

UZTARRIAREN DATUAK ▶

Argitaratzailea. Uztarrria Azpeitiko Kultur Koordinadora

Egoitza. Julian Elorza Hiribidea 4 behe, eskubia (Azpeitia, 20730)

Telefono eta fax zenbakia.
943 15 03 58

Posta elektronikoa.
uztarria@topagunea.com

Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000

Zenbakia. 56.a (2004ko azaroa)

Urtea. VI.a

Maiztasuna. Hilabetekaria

Web orria. www.uztarria.com

Diseinua. hitzEko

Publizitatea.

▶ 699 64 66 01

▶ uztarria@uztarria.com

Bazkidetza-Harpidetza. 15 03 58

Tirada. 2.400 ale

Inprimategia. Gertu

Azaleko argazkia. Ihintza Agirretxe

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik



Guk zerbitzua eta
lana euskaraz

[u-iritzia]

06 Xabier Borda.

Idazleak hemendik aurrera bi hilean behin idatziko du, 6. orrialdean. Zenbaki honetan doa aurrea.

08 Inkesta. Uztarrria

herriarrei kultur ekitaldietara joateko ohiturarik ba al duten galdezka jardun da.

[u-mamia]

10 ‘Bullying’. Ahoz aho

dabilen hitza da *bullying*. Zer da? Ikastetxeetako arduradunekin eta Izar Arregirekin hitz egin dugu

13 Jose Luis Iriarte.

1979an EAEko Estatutua negoziatu zuen.

16 Klik. Sagardo garaia

heldu da eta sagarrak kupelera bidean dira.



[u-jakiteko]


28 500 azpeitiar.

Imanol Eliasek beste liburu bat idatzi du. Bertan Azpeitiko 500 pertsonaia pasa dira protagonista.

[u-euskara]

40 Auto eskolak.

Posible al da gida baimena euskaraz ateratzea? Galdera horren erantzunaren bila ibili da Uztarrria.



UZTARRIA AZPEITIKO HERRI
ALDIZKARIAREN LAGUNTZAILEAK ▶
(erakunde publikoak)





Enbido ▶



Alaitz Olaizola

Historia eta istorioak

Yassus! Azkenean oporrak! Egun batzuk egoteko, eta beste batzuk, ibiltzeko. Bata gorputzaren nekea da eta bestea buruarena. Buruaren pisua kentzea lortuz gero, gorputzarena hor konpon! Ibili nahi horretan, behin heritik irtenda, goizean hasi eta ilundu arte bi hanken gainean alde batera eta bestera ibiliaz, ezin esan gorputzak atsedean hartzen duenik.

Etengabeko ibiltze horretan, tarteka nekatu egiten da, eta orduan, berdin izan ohi da kaleko bankuan edo Parthenon-aren harri artean eseri. Berdin gorputz nekatuarentzat; ez, ordea, turistez leporaino eginda dagoen harri zaindariarentzat. Hark azkaresaten du harriak ez ukitzeko. Nekatua dagoen oro, harrien gainean jarriko balitz, eta kontuan izanda denak dabiltzala nekatuta, aire eta uraren eraginez baino azkarrago gastatuko lirakeke.

Pertsona zibilizatuen moduan, eseri naiz eliza ortodoxo baten atariko banku batean. Nola ilunduko duen sentituz, jendearen joan-etorriei so. Atsedean hartzeaz gain, begien aurrean dudana ere historia delako, herri baten historia, norbanakoen istorioa.

Elizarako sartu irtenean asko dabiltza. Bakar batzuk, seiatarako meza entzutera doaz. Gehienak, ohiko kandelatxoak piztu, inguruan dituzten irudiei musu eman eta badoaz kalera. Bada, ordea, elizan sartu ez den emakume bat nire aurrean, aulkitxo batean eserita eskean. Beltzez jantzia goitik beheraino, buruko mantal eta guzti. Begira geratu naitaio, lotsagabe akaso. Barkatuko al dit! Ipuinetako sorgin gaiztoaren sekulako antza du. Hortz bat ere ez duela esatera ausartuko nintzateke. Izango du bere istorioa. Tristeia izango dela pentsatu dut, bakartia, lotsagabea, inork bisitatu gabeko istorioa. Batek daki! Agian, berak aukeratua, berarentzat hoberena. Han dago eskua luzatuta, marmarean ariko balitz bezala eskean. Ez diot ulertzen.

Emakumeak elizatik opil bat esku artean dutela irten dira. Opil bana zatituta ekarri dute elizara

pope-ak bedeinka ditzan. Bedeinkatu ostean, eliza atarira irten dira paseoan dabiltzan guztiei zati bana eskaintzera. Amonak, marmarra areagotu du. Emakume bat hurbildu zait, grekeraz opil zati bat nahi al dudan galdetu didala suposatu eta baietz esan diot. Ez dakit zergatik geratu den niri begira. Akaso, nire hitz egiteko moduagatik edo bertakoa nintzela uste eta turista batekin topo egin duelako.

▶ **OPILAK.** Opil gehiegi dago han dagoen jende kopuruarentzat, eta amona zaharrak sekulako zati pila batu ditu. Mantala opilez bete diote. Behin zeremonia bukatu eta gero, sartu dira berriro elizara eta inor begira ez duela pentsatuta, amonak bota ditu zati mordo bat lurrera inguruan dabiltzan uso-entzat. Gainontzekoak, poltsan sartu eta zakar ontzi gainean utzi ditu. Hortzik gabeko emakumeak, historiarik gabeko emakumeak, dirua behar du, ez opilak. Poltsa uzteko zutitu den horretan, belau-netaraino jaitsiak dituen galtzeta beltzak gerrira jasotzeko keinua egin du, hanka eta sabel alde mehea agerian utziz. Gona zaharra berriro beheartzean, uso guztiak kolpe batez aireratu dira, izututa. Zaharra da, baina garbo ederra dauka.

Eseri da pixkanaka bere inguruan dituen poltsak bilduz eta sekulako ariketa zaila egin eta gero, horra non botatzen duen sekulako txistu poltsa. Jarraian, etengabe aitaren batean hasiz. Behin eta berriz, eskua gora eta beheara. Eta ni, barreari ezin eutsita egoeraren komikotasunagatik. Elementu ederra! Emakumeak badaki meza luzea dela. Eguneko sos apurrak bildu dituela jabetuta, bere txirringittoa jaso eta joan da. Nora doa? Elizatik opilarekin atera direnak, galdutako zerbait bilatzeko egiten omen dute, hori omen dio tradizioak. Askok dira zerbait galdutakoak itxura denez. Emakume zaharrak, bere burua bilatzen nahiko lan inondik inora ere, eta denak, han, fedearen bueltan elkartuak.

Ilundu du. Acropolis-a, historia, argiztatu dute. Fededunek anima garbitu dute, eta amonak zer?

Elizan kantuan jarraitzen dute. Istorio mordo bat, historia bakarra, atzealdeko mendi tontorrean.

Han eserita jarraituko dut, historia baino istorioak gehiago interesatzen zaizkidala erabakiz.

HILEKO ESAERA ▶

Gauza gutxi kontsolatzen du, gutxi penatzen duenak

Gutunak ▶

‘Urola-Kostako Hitza’ eta udal diru laguntzak

▶ **Azpeitiko Udalak ‘Urola-Kostako Hitza’ euskarazko egunkaria diruz lagun dezala eskatu zuen urriaren 23an gehiengo sozialak. Hori dela eta, Udalak gutun bat idatzi du eta Uztarriak —‘Hitza’-n bazkide da— erantzun egin dio. Hona biak.**

Urriaren 23ko prentsaurrekoa eman zuten zenbait ordezkariak eta herritar guztiei udal honek zera adierazi nahi die:

1. 2004. urteko aurrekontuak abenduan onartu ziren; aurrekontu hauetan %34ko igoera izan du Euskara Sailak EBPnko lanak dira eta. 2004ko kudeaketa planean markatu den lehentasuna arlo sozio-ekonomikoan euskara bultzatzea izan da.

2. *Hitza* aurten sortu da eta zeharka udal honek lagundu dio; lokalak utziz edota publizitatea bidalita (5.000 euro), besteak beste. Bestalde *Hitza*-k jasotzen du diru laguntza publikoa beste erakundeetatik (Foru Aldundia edo Jaurilaritza).

3. 2005eko aurrekontuak orain ari gara prestatzen eta, *Hitza*-ren arduradunei esan genien bezala, orain dugu aukera *Urola-Kostako Hitza*-ren laguntza zehazteko.

4. Dena dela euskararen normalizazio bidean egokia izango litzateke herritarrek ere euren aportazioa egitea *Hitza* bideragarria

izateko eta bideragarritasun hori guztiz diru publikoan oinarrituta gera ez dadin.

▶ **Ana Mendizabal (Azpeitiko Udaleko Hezkuntza-Euskara batzordeburua)**

U*rola-Kostako Hitza*-k udal diru laguntzak behar dituela askotan azaldu diogu Azpeitiko Udalarik, euskararen normalizazio aldetik eta proiektu komunikatibo aldetik oso garrantzitsua delako. Berririo zuzenduko gaitzaizkio, Ana Mendizabal Udaleko Euskara batzordeburuak *Hitza*-n gutuna idatzi duela eta.

1. Ana Mendizabal urriaren 23ko prentsaurrekoa eman zutenei zuzendu zaie. *Hitza*-ren aldeko agerraldira azaldu zirenak eta atxikimendua eman dutenak Azpeitiko gehiengo soziala dira. Eta hau eskatzen dute: Udalak *Urola-Kostako Hitza* diruz laguntzea.

2. “2004. urteko aurrekontuak abenduan onartu ziren” Udalean, dio Ana Mendizabalek. Ados. Baina Udaleko arduradunek 2003ko abendurako bazekiten, diru kontu eta guzti, *Hitza* 2004 hasieran sortuko zela. Anak dio EBPnren lehentasuna arlo-sozioekonomikoa dela. *Hitza* ez, beraz. Guretzat biak dira. Gainera, *Hitza*-k on egiten dio arlo sozioekonomikoko euskalduntze prozesuari.

3. *Hitza*-ri “zeharka udal honek lagundu dio; lokalak utziz edota publizitatea bidalita (5.000 euro)”. Publizitatea jartzea ez da diru laguntza ematea; hori zerbitzu bat ordaintzea da. Eta

lokala uzteaz ba...; Udalak orain, behintzat, ez du esaten Uztarriak finantzatzen duenik *Hitza*.

4. “*Hitza*-k jasotzen du diru laguntza publikoa beste erakundeetatik (Foru Aldundia edo Jaurilaritza)”, dio Anak. *Urola-Kostako Hitza* ez da Gipuzkoa osokoa eta Aldundiak laguntzen du. *Hitza* ez da EAE osokoa eta Eusko Jaurilaritzak laguntzen du. Biek lehentasunen artean dutelako laguntzeko orduan. *Urola-Kostako Hitza* Azpeitiko ere bada, eta gure Udalak ez du diruz laguntzen... Nola ulertzen da hori?

5. “2005eko aurrekontuak orain ari gara prestatzen eta, *Hitza*-ren arduradunei esan genien bezala, orain dugu aukera *Urola-Kostako Hitza*-ren laguntza zehazteko”. Ados. Baina *Hitza*-k 2004an ere behar du udal laguntza. Ez ahaztu: otsailaren 20an sortu zen.

6. “Egokia izango litzateke herritarrek ere bere aportazioa egitea *Hitza* bideragarria izateko eta bideragarritasun hori guztiz diru publikoan oinarrituta gera ez dadin”, dio Anak. Ados. Laster hasiko dugu harpidedunen artean diru bilketa kanpaina; herritarrek ere ekarpenik egin behar dutelako herri proiektu honetan. Udalak ere pentsatu beharko luke, ordea, *Hitza*-ren bideragarritasuna ezin dela guztiz herritarrengan oinarritu, ezta?... Euskara ez dago normalizatua, eta *Hitza* euskarazko egunkariak den laguntza behar du; besteak beste, Azpeitiko Udalarrena.

▶ **Uztarria Kultur Koordinadora**

Era guztietako erakundeen IRUDI KORPORATIBOA

- ▶ Katalogoen diseinua
- ▶ Kartelak, txartelak, diptikoak, triptikoak...
- ▶ Aldizkariak, liburuak, argitalpenak, postalak...
- ▶ Erakustazoketarako panelak
- ▶ Argazki digitalen zerbitzua

hitzeko
euskara eta komunikazio zerbitzuak

Goiko kale 5, 3A
Tel.: 665 723979
hitzeko@hitzeko.com

itzulpenak - euskara planak - **komunikazioa** - produktuak



Xabi Borda

Koadriletan

Baik, nor da?", deika ari zaizkit telefonora. "Xabi?", galdetu du ahots batek bestal-detik. "Bai, neu nauk". "Uztarriatik deitzen diat, norbait behar diagu bi hilean behin artikulu bat idazteko. Nahi al duk hik idatzi?". Gauzak horrela datoz bizitza honetan, bat-batean eta ustekabeen. Erantzunak ere hala ematen ditugu, gehiegi pentsatu gabe: "Bueno, ez zakiat asmatuko dudana...", eta gero harrotasunez "... baina ausartuko nindukek. Zenbat lerro dira?".

Beti hartu izan diot pulpito tankera era honetako txokoei. Ez dakit zergatik. Zenbait idazleei apaiz itxura hartzen diedalako edo idazle eta irakurleen artean ez delako eztabaidarik izaten (batek hitz egin eta besteek entzun). Berdin dio, kontua da beti hartu izan diedala pulpito itxura. Eta hasi aurretik, apaizen tonutik aldentzeko ahalegina behintzat egingo dudala agintzen dizuet.

Pulpito hau altuegi jarria dagoela iruditzen zait. Metro gehiegi dituela. Egia esateko, niri izua ematen dit altuerak. Nahiago izaten dut babesetik begiratu amildegiei, hesien atzetik. Eta itsasoko harkaitzetara gehiegi ez gerturatu, badaezpada. Bai, beldurra eman dit hona igotzeak, izerdia hasi zait kopetatik behera, zorua mugitzen eta hanke ez dinate erantzuten. 'Bertigoa' deitzen diote honi. Gaurkoa pasatuko dut, baina hurrengorako pulpitoari baranda bat ipintzeko eskatu behar diet Uztarriakoei.

Aurretik hemen izan direnek eman diote toki honi duen altuera. Uztarria gure etxeetara iristen hasi zenetik hor ibili dira Alaitz, Fernando, Pako eta besteak gero eta gorago jasotzen pulpitoa. Artikulu onak eta oso onak idatzi dituzte. Izan da tartean artikulu antologikorik ere. Errespetua zor diot, beraz, txoko honi. Ez nioke maila jaitsi nahi. Gorago eramatea ere ez da erraza izango. Hemendik aldegitan, hartutako mailan uzten badut, konforme.

Eta altueraz gain, toki honek badu kezkatzen nauen beste gauza bat. Txoko hau lagunak egiteko ez dela lekurik egokiena pentsatzen dut. Lagunak egiteko baino galtzeko arrisku handiagoa ikusten diot. Azpeitia txikia da eta ia denok elkar ezagutzen

dugu, bistaz bada ere. Eta galderak sortzen zaizkit. Ezagutzen nautenek ondo hartuko ote dituzte hemendik botatakoak? Ezagutzen ez nautenek zer aurreiritzi osatuko dute nitaz? Hemendik aurrera, lehen baino gehiago kostatuko al zait lagunak egitea kalean?

▶ **JAR GAITEZEN BEGIRA.** Ez dela horrenbesteko pentsatu duzenok begiratu iezaiozue Azpeitiari, jarri zaitezte Erdi kalera begira. Jendea bete dago, larunbat gaua da. Taberna gehienak goraino beteta daude. Lehenengo begiratuan, giro ederra dagoela esango duzue. Ez dela munduko beste tokietan horrelako lagunarte apartekorik erraz topatzen. Denak alai eta kontent dabiltzaila. Beharbada arrazoi izango duzue, baina begiratu hobeto.

Jendea multzotan banatzen da gurean, koadriletan. Eta multzoka gabilta kalean gora eta behera, tabernaz taberna. Zurito bat hartu eta hurrengora, erritmo bizian. Askotan etortzen zait burura larunbat gauak *martxa erregulatuen* antzekoak direla. Ez du balio lasterka ibiltzeak, ez eta oso astiro ere. Eta kontrol postu batzutatik pasatu behar da. Taberna bakoitza kontrol postu bat da.

Koadrilak berez talde itxiak dira: edozeinek esango dizu bere koadrilan 15 lagun direla, 20 edo 25 direla... Kopuru finko bat ematean koadrila multzo itxiak direla esaten ari gara. Eta multzo horiek ez dira elkarrekin hain erraz nahasten. Azpeitian lagun berriak egitea nahiko zaila dela iruditzen zait batzuetan. Jakina koadrilakoez aparte baditugula lagunak, ikastola garaikoak, musika eskolan egindakoak... Baina posible da pertsona batzuekin, nahiz eta bizi oso bat kale berak zapaltzen eman, inoiz hitzik ez gurutzatzea. Pena ematen dit horrek.

Inguruko herriren batean festak direnean, zuzen-zuzen hara abiatzeko ohitura dugu. Lagun berriak egiteko itxaropenarekin, gainera. Lehenengo aldiz ikusten ditugun lagunak nahi ditugu. Misterioa ematen dio horrek gauari. Baina ez al dute misterio bera, edo handiagoa, kale berberetan ibili arren ezagutzen ez ditugun banakoek? Baietz pentsatu nahi dut, Azpeitiko ezezagunak ezagutzeak merezi duela. Herrian badela oraindik zer eta zein deskubritua. Agur eta erdi ezagun eta ezezagun guztioi.

HILEKO GALDERA ▶

Herri honetan kulturak hilabete baino ez al du irauten?



ERALDAKETAK ETA KONPONKETAK

pressto

Kalitatezko Tindalegi
Azkarrek www.pressto.com

kremailera apurtu zaizula,
soinekoa tarratu zaizula,
argaldu zarela



UTZI EZAZU

pressto-ko

PROFESIONALEN ESKU

Ojalak, kremailerak, barrenak, forroak, e.a.
Larruzko arropen konponketa



kalitatezko ERALDAKETAK
eta KONPONKETAK



larruzko jantzien ERALDAKETA
eta KONPONKETAK

Jose Artetxe, 9 AZPEITIA

943 81 63 62

Guardia kalea, 3 AZKOITIA

943 85 16 61

San Francisco, 32 ELGOIBAR

943 74 35 08



Azpeitiko
alde-zaharreko
Merkatarien
Elkartea

* Agirre Oparidenda
* Aintzin
* Disdira
* Egaña
* Jone eta Maikar
* Jostaldi
* Kimetz
* Martina Isasti
* Oinkari
* Romaes



**%10eko deskontua
eskatu eta erabili**

agirre oparidenda - erdikale, 1
aitzin - santiago 8
disdira - elizkale, 1
egaña - santiago, 16
jone eta maikar - julian elorza, 7
jostaldi - erdikale, 15
kimetz - julian elorza, 5
martina isasti - julian elorza, 5
oinkari - julian elorza, 5
romaes - eliz kale, 3

Trauskil ▶ Jon Berdejo



Hau ▶



Jokin Uranga

Azaroak 3 eta 4

Beste behin ere, zergatik ulertu ez arren, goizeko hamarrek alderako Donostian izango gara azpeitiar batzuk, eta ez hain goxoak diren alde zaharreko pintxoak jaten, Gipuzkoako Epaitegi Probintzian baidak. Arrazoiak aski ezaguna zaizue honezkero gehienoi. Muntaiak juridiko-mediatiko baten ondoren, hau da epaileen aurrean eseri beharko garen laugarren aldian azken hiru urteotan. Itxura guztien arabera, azken honek erabaki dezake gure etorkizuna. 9 gazte gara 45 urteko zigor eskaerari aurre egin beharko diogunak, baina horrek ez du esan nahi gu bakarrik izango garenik epaituak. Aspaldi eta betikoez diseinatutako estrategia horrekin, gazteria eta gazteon aske bizi eta sentitzeko eskubideak eta beharrak ukatzen baitira. Hori horrela, eta gurea baino gehiago, herriaren arazoa dela pentsatuz, herriko zenbait eragilerengana jo genuen babeseske; erantzuna beharrezko neurri berekoa izan dela esan genezake erratzeko beldurrik gabe. 30 taldetik gora dira bat egin eta eraso honen zentzugabekeria salatu dutenak. Mila esker guztioi.

Guk dakigu ondoen ez dagoela horrela ibili beharrik, hara eta hona, herriko zahar nahiz gazteen arazoak modu baketsu eta zibilizatu baten konpontzeko borondaterik izan balitz.

Azpeitian, gazteok antolatu eta harremanak sendotzeko lokalen premia aspaldiko errealitatea denez, zenbait gazte udaletxera bueltaka hasi zela urte ugari da, eta ez zaigu inoiz ez gatzetxe eta ezta hitzik ere eman orain arte. Herriaren mesederako jarritako amets eta ilusio guztiak zapuztuz, bizkarra da erakutsi zaigun bakarra.

Gure ustez, dena delarik epaia, guregan eta senideengan eragin zuzena izan dezakeen arren, horrek ez du ez aldatuko ez konponduko Azpeitiko errealitatea. Arazo eta gabeziek lehengoan jarraituko dute.

Galdetuz ▶

Kultur ekitaldietara joateko ohiturarik bai?

INAXITA AGIRRE ▶

azpeitiarra



“Orain gero eta gutxiago joaten naiz kultur ekitaldietara, dagoeneko ohitura galduta dut. Baina lehen, gazteagoa nintzenean, beti joaten nintzen. Ez nuen bat bera ere galtzen”.

LURDES AGIRRETXE ▶

azpeitiarra



“Bai, gustatzen zaizkit kultur ekitaldiak, eta antzerki topaketetara-eta beti joaten naiz. Askok gustatzen zait antzerkia eta ez dut bat bera ere galtzen”.

M. DOLORES UDABE ▶

azpeitiarra



“Askok gustatzen zaizkit kultur ekitaldiak. Baina askotan perezak dela-eta ez naiz joaten. Baina lehen joaten nintzen, eta orain tarteka bada ere joaten naiz”.

JOSE ANGEL URBIZU ▶

azpeitiarra



“Egia esan, ez dut ohiturarik horrelako ekitaldietara joateko. Eta ez dut inoiz izan, gainera. Ez zaizkit gehiegi gustatzen eta, beraz, ez naiz joaten”.

Apunteak ▶

GORA.

Mikel Labakak Realeko lehen taldearekin bere aurreneko partida jokatu zuen, urriaren 24an, Mallorcaren aurka. 2-1 irabazi zuten. Merezki du Labakak.

BEHERA.

Non egin dira herri honetan erakusketak? Antxieta Etxean. Azkeneko 25 urtean, makina bat. Eta orain beste norabide bat hartuko du. Kulturari Antxieta atekak itxi egin zaizkio.



Antxieta Etxea. IHINTZA AGIRRETXE

GALDERA.

Orain dela bi urteko Inauterietako Elegante Eguneko liskarrarengatik Azpeitiko bederatzi gaztek Donostian duten epaiketa dela eta. Bi urte hauetan zergatik ez da herrian bertan konpondu auzia?

Uztarria.com ▶

Inkesta.

Lanera itzultzeak zer eragin du zугan?

- ▶ Tristura pixka bat. %57,6.
- ▶ Depresioa. %18,5.
- ▶ Ezertxo ere ez. %4,4.
- ▶ Gustora joaten naiz. %19,5

Orain dagoena.

- ▶ Inkesta. Poesia irakurtzeko zaletasunik ba al duzu?
- ▶ Eztabaida. Azpeitiko motorzaletasunari buruz.

Zer dio? ▶ Mirari Amenabar (Askapenako brigadista)

Brigadistak Kuban eta Txilen

Askapenaren internacionalismo lanean, udako brigadak ezagunak dira. Aurten 110 euskaldun joan dira Irlanda, Kuba, Txiapas, Argentina, Txile eta Venezuelara. Tartean, bi azkoitiar eta bi azpeitiar.

Kuban, Habanan egon ziren lehen egunetan. Han instituzioen antolakuntza nola bideratzen duten ikusi zuten. Sozialismoan oinarrituta, herriek duten erabaki ahalmenean, komunikazio zuzena ematen da.

Hiritik komunitateetara mugitu eta gazteekin elkarlanean aritu dira. Nekazaritzan, janaria banatzeko erak eman die atentzia. Gainera, haien izaera sozialista behin eta berriro antzematen da; inprobisazioa, materialen erabilera, hezkuntza eta osasunaren garrantzia... eta, bereziki, nazio kontzeptua, kubatar izaitearen garrantzia. Halaber, Euskal Herriko egoera politikoaren testigantza emateko aukera izan dute.

Txilen izan garenok mapucheena iristea genuen

helburu. Han, harrera bikaina izan genuen Manuel Rodriguez mugimenduko, brigaden gidarien aldetik. Plangintza, euskaldunon eta gure borrokaren berri ematea zen. Bide batez, haien azken urteetako historia azaldu ziguten. Allenderen gobernuko hiru urteetako ezker politika, nola Pinochetek suntsitu zuen AEBen laguntzaz. Zenbat hildako eta desagertu izan zen, tortura, eraildakoak, beldurra, errepre-sioa... Oraindik egindakoa salatzen dihardute eta Txilen ezker politika baten beharra eskatzen ari dira.

Mapucheen berri ere izan genuen. Santiagon 80 talde daude. Hegoaldera, Concepcionetik Valdivia-ra, komunitate ugari gatazkan daude eta han sartzea arriskutsua da. Lurraldetasuna eskatzen dute eta protestek 46 preso politiko utzi dituzte. Egun, Txileko gobernuak, mapucheen kontra inoiz izan den epaiketarik gogorrena emango dela esan du.

Jokin, guztion lana

Jokin: mutil izen euskalduna. Izen propio bat, izen bat gehiago hainbesteren artean; Hondarribiko gertakari tristeak medio ezagun egin zaiguna, ordea. *Bullying* izen ponposoa jarri diote han gertatutakoari; eskola edo haurren artean ematen den akoso eta erasoei, alegia.

Hedabideetan, hainbat psikologo eta adituen iritziak entzun ditut, gure seme-alabak akosatuak badira nola jokatu gomendatuz. Gurasoen larritasuna ulertzekoa da, haurrak eskolara bidaltzen ditugunean leku seguruan daudela uste baitugu. Baina hor doa galdera madarikatua: eta gure seme edo alaba akosatua ez, baizik akosatzailea bada? Nola jokatu orduan? Inork egiten ez duen galdera. Zaila egiten zaigu horretan pentsatzea ere, gure haurrak zitalkeria horiek egiteko gai ikusten ez ditugulako... ez! Gure haurrak ez! Ziur Hondarribian akosatzaile izan ziren gazteen gurasoek espresio bera erabili zutela.

Azpeitian bertan 'barkuko parkean' ikusitakoa kontatu nahi dizuet. 8-11 urte bitarteko neska-mutiko taldea jolasean. Konturatu gabe, mutiko batek ukalondoko bat eman zion urdailean beste neskato bati. Garbi zegoen neskatoa 'buru' zela taldean, bere aieneak jolasa seko geldiarazi baitzuten. Mutikoari errieta egin ondoren, zigortzea erabaki zuten, haur bakoitzak zaplasteko bat emanaz. Hala egin ere, eta ez nolanhiko zaplastekoak, gainera, mutiko gizagaixoak iladan, protestatu gabe jaso zituenak, masaila gorri, negar malkoei eutsi ezinik.

Han gelditu nintzen harri eta zur. Zer ari gara gaizki egiten? Gure haurrak etorkizunerako prestatu nahi ditugu, azkar eta prestuak izan daitezen. Baina garrantzitsuena ahaztu zaigu, inongo eskoletan ematen ez den ikasgaia: pertsona ona nola izan erakusten duena. Guraso, irakasle, hezitzaile, auzokide, herritar guztion lana.

◀ Eta beste



Ainhoa Odriozola



'BULLYING'

eta elkarbizitza

Beti egon izan dira gazteen artean tirabirak. Denek ezagutu dute gelakideen artean zein erasoak izan ohi diren. Noiz arte? Hondarribian gertatu zen...

► Testuak eta argazkiak: Kepa Urbietta

Ikasle gaztetxo batek bere buruaz beste egin zuen Hondarribian. Euskal Herriko komunikabide guztietan toki handia hartu zuen albisteak eta ordutik gaur artean zurrumurru eta iritzi asko sortu da. Zigorra ere bai.

Gai horrek gurasoei zer pentsatu asko emango zien, beldurra eta urduritasuna akaso sentimenduetan. Baita ikastetxeetako irakasleei ere. Azpeitiko ikastetxeetako zuzendarien iritziekin egin dugutopo.

Bullying deitu izan zaio eraso mota horiei. Ez da oraintxe sortu den zerbait, eta horretan bat datoz zuzendariak. Oraingoan, ordea, emaitzak, heriotzak bihotzak izoztu ditu. Bere buruaz beste egin zuen Jokinek, eta hasieratik gelakide zituen zortzi gazteei egotzi zaie errua. "Arazoa sinplifikatzea da ardura guztia talde batengan uztea, eta zehazki gaztetxoei bakarrik begiratzea oker handia. Komunikabideen lanak eragin handia izan du horretan. Jokini egindako min konponezinaz gain, ez ote garamatza honek beste batzuei ere konponezina den kalte handi bat egitera?", esan du Aitor Azpillaga Ikasberri

Azpeitiko Ikastolako zuzendariak. Hondarrabiko institutuko irakasle batek ere jokaera laidogarria erakutsi omen zuen Jokinekiko eta gelakide guztien aurrean. Hala zabaldu zuten komunikabideetan. "Komunikabideek ez dute oso ondo eman albistea. Kontestua ez dute kontuan izan, faltan bota dugu. Eta horrek guztiak iritzi publikoaren begietan jarri du irakaslea", dio Mamen Iriarte Iraurgi Ikastetxeko zuzendariak.

► **NEURRIAK.** Azpeitiko ikastetxeetan lehendik kontuan zuten *bullying*-a bazela eta landu ere egiten zuten. Noski, orain ere lan horretan jarraitzen dute. Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegaraik, adibidez, Belen Zubizarreta zuzendariak esanda, "gaiarekin loturiko zenbait zeharlerro eta tutorretza programak landu izan ditu eta lantzen ari da, helburua elkarbizitza eta errespetua izanik".

Denek azpimarratzen dute errespetuaren eta elkarbizitzaren garrantzia. "Gizartea eredu da gazteentzat eta honek arazoak

konpontzeko hartzen dituen bide berak hartzen dituzte gazteek euren arazoak konpontzeko ere. Era berean, gizartea asko aldatu da baina ikasketak ez, eta behar du". Iriarteren iritzi horri gehitzen zaio Zubizarretaren honakoa ere: "Arazo hau ez da inguru eskolarrarena soilik, baizik eta lagunartek, familiak eta gizarteak berak

Datua ►

14

URTE.

Hain gutxi eta erabaki latza hartu zuen Jokinek. *Bullying* erasoak, ordea, ez du adin txikietan bakarrik eragina. Helduen artean ere ezagutzen dira kasuak.





ere zer esan handia du. Eta arazo honek erantzukizun koordinatu eta bateratua behar du”.

Kasuak kasu, erantzukizuna guztiona dela esateak gizartearen ibilbidean azterketa egitea ez ote du eskatzen?

► **ERANTZUKIZUNA.** Garai bakoitzak ezagutu ditu erasotzaileak

eta erasotuak, eta ez da lortu hori saihesterik. Azpillagak garbi du zein bide hartu behar den: “Gertaera horren inguruan hitz egin-dako guztiaren zati handiegia errudunak zein diren erabakitza zuzendu da. Arazoak ez dira konpontzen, eta ez dira konpondu behar ez ikusiarena eginez, bazterketekin edo zigorren bidez.

Arazoak elkarriketarekin, tratu bidez konpontzen dira”.

Lan asko, beraz, erantzukizuna guztiona den gaian. Elkarbizitza hobe baten bila etxetik, eskolatik, gizartetik abiatu beharko bada, kontzientziaren argia piztu eta bakoitzak nolako ardurak dituen finkatu beharko dela esaten da. Hortik aurrera, elkarlana. ►►

“Gizarteak arazoak konpontzeko duen eredua jarraitzen dute gazteek ere arazoak konpontzeko”

MAMEN IRIARTE ►

Iraurgi Ikastetxeko zuzendaria



“Hitz egindako guztiaren zati handiegia errudunak zein diren erabakitza zuzendu da”

AITOR AZPILLAGA ►

Ikasberriko zuzendaria



“Arazo honek konpontzeko erantzukizun koordinatu eta bateratua behar du”

BELÉN ZUBIZARRETA ►

Karmelo Etxegaraiko zuzendaria



» IZAR ARREGI ▶ psikologo klinikoa

Bullying fenomenoak Eus-
kal Herri osora zabaldu
den ezbehar latza dela eta. Gaia-
ren inguruko galderak erantzuten
izan da Izar Arregi psikologoa.

**Hondarribiko gertaeraz zein
da zure hausnarketa?**

Nahiko kasu eta egoera larria da.
Beti egon den gaia da eta inoiz ez
zaio behar bezainbesteko garrant-
zirik eman. Inoiz ez dugu jakin
nola aurre egin. Orain derrepente
tean alarma soziala piztu da eta
hitzaldiak, fomauntzak eta abar
antolatu dira. Eta oso ondo dago
hori guztia egitea, baina modaren
arabera gabiltzala dirudi eta ho-
rrek haserrea sortzen dit.

Zer egin, ordea?

Irtenbideak, ahal dela, gertatu au-
retik aurkitu behar dira. Gainera,
horrelako kasuetan gizarteak beti
errudun bat aurkitu behar izaten
du lasai gelditzeko. Zortzi ikasle
horiek horrela tratatzea ez da bi-
dezkoa; ez dira hiltzaileak, ez
dakit mutil onak diren edo ez,
baina injustizia da beraiekin egi-
ten ari direna.

Zer da zehazki 'bullying'-a?

Ikasleen artean ematen den
eraso psikologikoa da. Depresio
sintomak dira horren ondorioak:
autoestima txikia, jolasteko gogo
eza, ikasketetarako motibazio txi-
kia, komunikatzeko gaitasun falta
eta babesik ez sentitzea.

Psikologikoa bakarrik?

Bai. Baina efektu hori kolpe ba-
tzuen ondoren eman liteke. Azken
batean, lagunarteko arazo-
etatik etorritako depresio bat da,
kolpeen bidez edo beste bide ba-
teaz.

Etxebizitza salgai ZARAUTZ

3 logela, egongela, komuna,
sukalde-jangela, gas bidezko
berogailua, igogailua, balkoi
handia, kanpoalde argitsua,
bizitzeko prest **297.500 euro**

Deitu 618040269



“Azpeitiko eskola denetan daude autoestima falta duten gaztetxoek kasuak”

**Hondarribiko gazteek 14-15
urte dituzte. Adinak ba al du
zerikusirik?**

Adin guztietan gertatzen da, ba-
koitzean bere modura. Txiki-txiki-
tatik hasten diren lidergo motek
sortua, aldatzen doa adinean au-
rrera. Lidertza positiboa da; ba-
tzuek modu demokratikoan era-
biltzen dute; beste batzuek, be-
rriz, indarrez. Liderra izatea karis-
ma izatea da eta hori ona da, be-
harrezkoa. Horregatik, erakutsi
egin behar zaie ondo erabiltzen.

**Erasotzaileak ba al du helbu-
rurik?**

Kasuak eta kasuak daude, baina
nik uste autoestima falta dutela
erasotzaileek. Aztertu egin behar

da. Beti atentzioa emateko egiten
duela diogu, baina zergatik nahi
dute atentzioa eman? Bakarrik
daudelako, eta hutsuneak dituz-
telako. Zergatik? Oso galdera
ederra da eta hori da bidea.
Azpeitian ere horrelako kasu-
ak eskola guztietan gertatzen
dira.

**Ba al da ezaugarri komunik-
biktimen artean?**

Ez dago prototipo finkorik. Nahi-
koa da ezaugarri ezberdin txiki
bat biktima izateko.

**Gurasoek eta irakasleek zen-
baterainoko ardura dute?**

Beste guztiok bezainbeste.
Ohartu nahi duenak badaki bikti-
ma nor den. Baina erantzukizuna

“Erantzukizuna
denona da, ez irakasle
eta gurasoena bakarrik.
Beste gauza bat da
asmatzen den edo ez”

“Arazoak aztertze-
ko modua aldatu behar da,
errudunak bilatzeari
utzita. Gertatua zerk
sortu duen”

denona da. Beste gauza da saia-
tu arren, ez asmatzea.

Psikologoek ere bai, beraz.

Arazoak aztertze-
ko modua aldatu
behar da, errudunak bilatzeari
utzita. Elkarbizitza irizpideak jarri,
jarrerak landu eta horren arabera
arazoa aztertu. Gertatu dena zerk
eragin duen aztertu. Psikologoak
horiek antzeman, eta gurasoe-
kin eta irakasleekin koordinatzeko
lana egin behar du. Tutoretza or-
duak tarteka ematen dira eskole-
tan. Nik gai bezala, bakea lortze-
ko edukazioa, sexuaren eduka-
zioa... jarriko nituzke, eta bide ho-
rretatik landu bai kazetaritza, gi-
zarte edo dena delakoa. Horrek
gizarte osoa aldatzea dakarki. Es-
kola, gizartearen arabera alda-
tzen da, beti atzetik doa, aurretik
joan beharko lukeenean. Oso
zaila da, ordea. Guraso askok
tituluari baino ez diote ematen
garrantzia, ez zaie askorik axola
seme-alaba gaiztoa den edo ez,
“aldatuko da”, diote.

Zer egin behar da saihesteko?

Elkarlana, erruduna bilatu beha-
rrean neurriak hartzen hasi. Ikus-
pegi globaletik aztertu. Gurasoei
eta irakasleei, bakoitzak bere es-
parruan dituzten lanak zeintzuk
diren planteatu. Materiala aztertu
eta zeharka landu, eta ikasleei
hausnarketa prozesua egin.
Serio hartu. Elkarbizitza jarrere-
tan oinarritutako gizartearen
ahalegindu behar dugu. ◀

JOSE LUIS IRIARTE ▶ 1979an EAJren senataria Madrilén

“ Estatutua negoziatzean giroa ona zen Madrilén; gero azaldu dira frankistak ”

▶ Testuak eta argazkia: Enekoitz Esnaola (Donostia)



Gernikako Estatutuak 25 urte bete berri ditu, eta ikusi egin behar 26.a betetzen duen. Orduan, 1979an, azpeitiar batek zuzenean segitu zuten negoziazioak, Madrilgo ma-haiko kide izan zelako. Jose Luis Iriarte da hura. EAJren senataria zen orduan. 1979tik 1982ra izan zen. Urte hartan bertan, udan, Donostiara joan zen bizitzera, politikari profesional izateari utzita. Donostian hartu du Uztarria.

HAMAR URTERA.

1979ko urriaren 25ean onartu zen Gernikako Estatutua, eta hamar urtera Jose Antonio Ardanza EAEko lehendakariak 1979ko negoziazioetan parte hartu zutenei oroigarria eman zien. Argazkian, Ardanza bera, Gernikan, Jose Luis Iriarteri oroigarria ematen. Eskubikoa da Iriarte (berak utzitako argazkia da).

Nola sortu zitzaizun Madrilén senatari izateko aukera?

EAJ barruan Gipuzku Buru Batzarrean (GBB) nengoen, 1979tik bertatik, eta Gipuzkoako EAJren zerrendako aukeraketa GBBk egiten zuen. Izenak botatzen hasi ginen, neureak irten zuen, ea prest al nengoen Madrilera joateko, ezetz esan beharrean baietz esan nuen, eta halaxe joan nintzen, hauteskundeetan aukeratua izan ondoren. ▶

» **Ardura, orduan, oraingoena baino handiagoa al zen? Frankismoa bukatu berria zen, Hego Euskal Herrian Estatutua jarri nahi zen...**

Hasiera bat zen eta ikusmin handia zegoen. Gainera, orduan politikari profesionalik ez zegoen, denak amateurrak ginen. Ni neu enpresaria nintzen, eta Madrilera joan zen bakoitza bere lanbidean ari zen: abokatu... Gehienez ere, alderdi barruan punta-puntan zebiltzanak, tarteka horretara dedikatzen ziren; gutxi batzuk ziren, Arzalluz eta askoz gehiago ez. Garai hark ez zeukan gaur egungo itxurarik.

Madrilera orduan.

Bai, baina neure lana ez nuen utzi. Biak egiten nituen. Gainera, desberdina da Senatuan egon edo Kongresuan egon; Kongresuan astegun denetan egiten da lan, lan gehiago izaten delako, eta Senatuan, orduan behintzat, hiru egunez. Beraz, hiru egunetan Madril egoten nintzen, eta besteetan Azpeitian.

Ondo ezagutuko zenuen, hala ere, Madril.

Gehiegi ere ez, ez nuelako ia batera irteten. Ezagutzen nuena, lehendik ezagutzen nuen, neure lana zela eta.

Han non egoten zineten?

Hotel batean, EAJren hiru senatariok: Federico Zabala, Joseba Elsegui eta hirurok. Senatuaren ondoan zegoen hotel txiki bat zen.

Zer giro zegoen orduan Madril?

Ona. Orain baino hobea. Gaur egun baino hobeto ulertzen gintuzten, EAJkoak behintzat. Giroa gaiztotzen gero joan zen.

Zer dela eta? Orduan frankista asko zegoen ardura postuetan...

Begira, nik uste oker bat egin zutela espainiarrek: haiek uste zuten EAJk ETAn egundoko eragina zuela, eta pentsatzen zuten guri Gernikako Estatutua eman eta ETA EAJk desegin egingo zuela. Gerora ikusi zuten ETaren



Bi garaitako planak alderatuz

"1979an EAJk ez zuen autodeterminazio eskubidea proposatu eta eskatu, baina orain Ibarretxe Planak ere ez du zuzenean hori proposatzen, baizik eta soberania konpartitua. Baina horren barruan aukera hau jartzen du: Euskal Herriak erabakitzen badu gaur edo bihar egoera horretatik beste salto bat ematea, ba hori gauzatu ahal izatea; alegia, ez diogula aukera horri uko egiten. Baina 1979ko Estatutuarekin ere ez genion uko egin aukera horri. Nik orduan HBko jendearekin eztabaida asko izan nituen eta beti esaten nien ondo irakurtzeko Estatutua, garbi esaten genuelako ez geniola uko egiten historikoki dagozkigun eskubideei. Gainera, hortik etorri da EAJren salbazioa: behin ere ez du amore eman Espainiaren aurrean, ez duelako Espainiako Konstituzioa onartu eta ez delako Espainiako egituran murgildu. Orain ere hori dio EAJk, baina 1979aren aldean beste pauso bat emanez aurrera, eta gaurko egoera unilateraletik —Espainiako Estatuak baino ez dauka eskubidea erabakiak hartzeko: suspenditu gauza batzuk...—, egoera bilateralera pasatuz. Espainiarekiko berme osoa behar dugun Estatutua behar dugu, eta Ibarretxe Plana hori ere bada".

jarduerak ez zuela zerikusirik EAJ-ren erabakiarekin, ETA eta EAJ zeharo desberdinak direla ideologia eta estrategia aldetik, eta ikusi zutenean ETArein jarduera gero eta gogorrago zihoala, "zergatik eman diegu Estatutua euskaldunei?" eta abar galdetzen hasi ziren espainiar asko, eta orduan etorri ziren estatu kolpea eta. Haien jarrera okertuz joan da, eta ikusi azkeneko urteetan PPK, eta Aznarrek pertsonalki, zer egin duten, erabat-erabat etsaitzat hartuz.

Eta orduan frankistak non zeuden ba?

Mahaipen ezkatututa, Adolfo Suarez presidenteak gogor jokatu zuelako. Gerora azaldu dira frankistak.

Gernikako Estatutuaren negoziazioetan zenbateraino hartu zenuen parte?

Asko hartu nuen parte. 19 egun egin genituen Madrilen, mugitu gabe, uztailaren 2tik 21era, igandeak eta guzti. Epea uztailaren 21ean zegoen, gaueko hamabiak baino lehen.

Nolako asteak izan ziren?

Oso gogorrak. Guk proposamena eman genuen, eztabaidatu egin genuen haiekin, eragozpenak jartzen zizkieten... Adosten jardun genuen, beraz. Bi fase egon ziren: bat, Moncloan bertan, gauzak azkartzeko, zuzenean EAJko buruzagiak (Carlos Garaikoetxea, Xabier Arzalluz, Marcos Bizkaia, Mitxel Unzueta, Juan Mari Ollora eta Emilio Gebara) eta Espainiako Gobernuak negoziatzen (Suarez eta); bestea, gune ofizialetan, Estatutua negoziatzeko batzorde ofizialean (alderdi denok geunden: UCD, PSOE, AP, CIU, FN, EE, andalu-

Azkar-azkar

Euzkadi edo Euskadi?

Eztabaida zure garaian. Niri berdin-berdin zitzaidan; euskarari buruzko borrokekin nazka-nazka eginda nengoen.

Blas Piñar. Mahaian aurrean izaten nuen. Faxista handia izateko, oso jatorra zen...

Enrique Mujika. Euskal Herriko borroketan oso gutxi sartzen zen. Madril nahiago zuen hark.

Arzalluz. Garaikoetxearekin batera, Madrilen itzalik handiena zuena zen.

Garaikoetxea. Gauza bera.

Juan Mari Bandres. Ordu gehien sartzen zituen euskal politikaria, Marcos Bizkaiarekin batera.

Ezker abertzaleko bat.

Telesforo Monzon. Ez zen han gehien agintzen zuena, baina haientzat estandarte zen. Atseгина zen eta hiltun ona.

Nafarroa. Gernikako Estatutuan sartuta dago Nafarroa. Haiek ez dute nahi bat egiterik. Baina nik ez nuke Nafarroa Euskadira ekarriko, baizik eta Euskadi Nafarroan sartuko nuke. 1979an "Nafarroa, Euzkadi da" esatea akatsa izan zen. Igual esan behar genuen: "Nafarroa handi bat egin behar dugu, denok garelako nafarrak".

Herriko datuak

Azpeitiko errolda 1979an.

9.005 boto-emaile.

Botoak. 5.898.

Abstentzioa. 3.107.

Bai. 5.542.

Ez. 193.

Nuloak. 44.

Zuriak. 119.

zistak...), eta hemen Moncloan adosten zutenaz hitz egiten genuen, erabaki ofizialak hartzeko.

Zailena lortzen?

Kontzertu Ekonomikoa. Ez zen haien gustukoa.

Beste bat?

Xedapen Gehigarria. Oso gogorra izan zen negoziatzia.

Erazena?

Nik uste baino askoz errazago lortu genuen Gizarte Segurantzak. Gainera, geure proposamena baino indartsuago atera zen, eta harrituta geratu nintzen. Gero ikusi da espainiarrek ez dutela asmorik izan hori garatzeko.

Autodeterminazio eskubidea ez zuen eskatu EAJk. Ezker abertzaleak hori eskatzen zuen, besteak beste...

Estatutua negoziatu genuen abertzaleak EAJ eta EE ginen. HB ere bazegoen, bestalde, baina ez negoziatzen, han. Eta bai, HBk esaten zuen autodeterminazio eskubidearen klausula lortu behar zela, gero independentzia lortzeko. Ordagoa jo zuen HBk: edo dena lortzen zen edo batere ez. Gero abstentzioa eskatu zuen HBk.

EAJk zergatik hartu zuen beste bide bat?

Foru tradizioari jarraituz, 1839ko legea baino lehenago geneukan autogobernu maila berreskuratzeko gure nahia. Hau da, guk esaten genuen 1839 baino lehenago ez ginelabehin ere Madrilen menpe egon, baizik eta zuzenean Espainiako erregearekin gurela tratua, eta, gainera, foru pasea ere bagenuela, Madrilen hartzen ziren erabakiak erregeak hemen ezarri nahi bazituen, guk ez onartzeko eskumena gurela. Estatutua hori berriro lortu behar genuen.

la genioen, berrituta. Eta berrikuntza zen, erregearekin egin beharrean tratua, Espainiako Gobernu demokratikoarekin egitea, Korteetatik kanpo. Hori haiek azkenean ez zuten onartu, eta pentsa, beraz, autodeterminazio eskubidea onartuko zuten edo ez.

Zein zen, hain zuzen, EAJren estrategia?

Garaikoetxeak oso garbi esaten zuen: une hartan genituen helburuen minimo batera iritsiko ginen gu eta espainiarrek ukatu nahi zutenetik gutxiena ukatu beharko zuten. Bi postura desberdinak ziren zeharo, baina oreka puntua aurkitu beharra zegoen. Eta aurkitu zen. Ezker abertzalearen jokabidea segitu izan bagenu, ez genukeen oreka puntua aurkituko.

Erreferendumean zergatik jarri zen aukera bakarra: Estatutua bai edo ez?

Lege organikoa zen hura, eta lege organikoa edo onartu egiten da edo ez. Proiektua zehatza zen. Galdera sinplea: bai edo ez.

Ez iruditzen oso itxia izatea dela hori? Orain ere badirudi hala egingo litzatekeela: edo Ibarretxe Plana edo batere ez.

Horixe itxia zela, baina lege organikoa zelako.

Zu zeu gustura orduan eman zenuenarekin?

Bai.

Senatari izateari utzi egin zenion gero.

1982an, legealdi bukatzean. Politika profesional izateari ere bai.

Politika ere utzi zenuen gero.

Bai, 1986an. EAJn zatiketa egon zenean. Politika erabat utzita nago. ◀

elkarriketa osoa

www.uztarria.com-en

Enfermería y Cita Ejecuciones Diplomada



ARTEIXO ARTEITIKA

- Dieta pertsonalizatuak
- Kontsulta naturista
- Elikagari biologikoak
- Kirolarientzat elikadura
- Kosmetika naturala

Jose Artetxe, 8 Telf: 943 81 27 50

LORENZANO

Lore Sortak
Koroak
Lore Apaingarriak

Etxeetarako
zerbitzua dugu



Tel. 943 81 51 87
Loiolabide, 25

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura

KAITO TELEBISTA

Grabatutako bideoen kopiak egiten dira





81 53 35

sagarrondotik KUPELERA

Kupelerako bidean da dagoeneko sagar pila ederra. Luis Beloki Añota sagardotegiko nagusiak prozesu hori erakutsi dio Uztarriari

► Argazkiak: Uztarria




SAGAR BILTZEA.

Añota sagardotegikoek azkar bildu zituzten sagarrak. Familia, Urbitaundi baserrikoa da, eta tropel ederra ari zen lanean. Hamaika sagar klase erabiltzen dira sagardoa egiteko.



URAREN ERAGINA.

Sagarrei ura botatzen diete, garbitzeko eta mugitzeko. Mugitzen diren heinean, urez betetako erreten batera joaten dira. Eta hortik makinara.



AUKERAKETA.

Sinfin makinara bidean sagar ustelak kentzen dituzte normalean. Egun hartan sagar ustel gutxi zeuden eta Errezil sagarra kentzen zuten menbrilloa egiteko.


‘SINFINEAN’ GORA.

Erretenaren bukaeran *Sinfina* hasten da, eta hor gora abiatzen dira sagarrak. Gorako bidean garbitu egiten dira urarekin. Bukaerara iristen direnean *Matxaka*-rako bidea hartzen dute.



ZOMORROAK.

Aurtengoan sagar asko izan da, baina ez onak. Arpoa du; hau da, gaitza. Zomorro horiek ez dute sagarra hondatzen, baina garraztu egiten dute.



‘MATXAKA’.

Sagarrak makina horretara *Sinfin*-etik etortzen dira. Hemen txiki-txiki egin, eta gero, hodi batetik, tolarera joaten dira sagardo bihurtzeko. Lau ordutik sagar zatiak estutu ondoren, sagardoa kupelera joaten da.

KUPELTEGIA.

200 mila litro sagardo egiten dira Añotan urtero. Horretarako 267 mila kilo sagar erabiltzen dituzte. Hemen urte txarra bada, sagarrak Normandia, Britainia, Galizia, Espainia edo Frantziatik ekartzen dituzte.

Euskarazko prentsa eta Azpeitia' liburuaren ezaugarriak ▶

Euskarazko prentsa
eta Azpeitia



Izena. Euskarazko prentsa eta Azpeitia (Herri eraikuntzarako zutabea).
Egilea. Uztarría Kultur Koordinadora.
Orrialdeak. 176.
Argazkiak. 71.
Kapitulua. Sei.
▶ 1. Historia: Azpeitia, Euskal Herria.

▶ 2. Prentsako kioskoen egoera.
▶ 3. Uztarría aldizkariaren sorrera.
▶ 4. 'Egunkaria': erantzuna Azpeitian.
▶ 5. Azpeitiarrok hitza, egunero.
▶ 6. Konpromisoa, irudietan.
Liburuko artikulua kopurua. 73.
Liburuan genero kopurua. 15.

Parte-hartzaileak. 91 azpeitiar, Azpeitiko 16 erakunde eta 7 kanpotar. Besterik (2).
Liburuaren salneurria. 8 euro. Uztarriako bazkideek etxean jaso dute.
Salgai. Uztarría, Martinez, Iratzar, Eclipse eta Belaetxen.

Xabi Borda on-line

Urriaren 19an, Xabier Borda idazle azpeitiar gaztea Uztarriako egoitzan izan zen, herri-tarrek webean on-line eginiko galderak erantzuten. Ikusgai daude.

Laguntzarik gabe weba

Uztarría.com-ek ez du diru laguntzarik jasoko 2004an ere Eusko Jaurlaritzatik. Aurten oso puntu gutxiatik geratu da kanpion. Uztarriak erre-kurtsua sartuko du, diru laguntza jaso ahal izateko.

bukatu da III. kulturaldia; ARRAKASTATSUA IZAN DA

Urriaren 4tik 30era bitartean III. Kulturaldia ospatu da herrian, Uztarría Kultur Koordinadorak antolatuta. Aurtengoan herritarrek eta herriko taldeek izan dute protagonismo osoa ekitaldi guztietan. Ekitaldi ezberdin ugari izan dira ikus eta entzun gai.

▶ **BALORAZIOA.** Gustura geratu da Uztarriako Kultura taldea: "III. Kulturaldia arrakastatsua izan da. Batetik, jende aldetik, ekitaldi guztietan jende asko izan delako; tabernak eta udale-txe azpia gainezka egon



Ttakunparen emanaldia.



Lakrikun antzerki taldea.



Argazki erakusketa.



Literatura eta rocka.

dira behin baino gehiagotan. Eta arrakastatsua, bestetik, sormen aldetik, propio Kulturaldirako prestatutako kultur ekitaldiak izan direlako gehienak, denak ere Azpeitiko kultur eragileek eta taldeek sortutakoak. Hala, Kitarista Taldeak eta Erniarraitz Bertsozale Elkartek egin zuten bertso jarrien emanaldia berria eta berritzailea izan zen, eta are gehiago herriko rock taldeek Literatuztako kideekin egindako poesia-rock emanaldia. Lakrikun antzerki taldeak ere bere 10. urteurrenari buruzko antzezlan estreinatzen zuten Kulturaldian, eta Argazki Elkartek erakusketa berezia antolatu zuten. Emaizta eta sormena oparoa izan da, eta oso gustura gaude". ◀

U
1.006

bazkide gara
dagoeneko
Uztarrian;
eskerrik asko
denei

egin zaitez bazkide UZTARRIAN

Zure datuak Uztarriari helarazteko aukerak:

▶ Julian Elorza Hiribidea 4, behe eskubia (Azpeitia, 20730) ▶ 227 posta kutxa, Azpeitia
▶ uztarría@topagunea.com ▶ Telefonoa (eta faxa): 943 15 03 58 ▶ www.uztarría.com

IZEN-ABIZENAK ▶

NAN edo EHNA ▶

HELBIDEA ▶

HERRIA ▶

TELEFONOA ▶

E-MAILA ▶

KONTUKO 20 ZENBAKI (harpidedunek ez*) ▶

BAZKIDEAK ▶

Urtean. 24 euro.
Jasoko dituzu.
▶ Uztarría herri aldizkaria.
▶ Imanol Elias eta Joxe Takolo biografiak.
▶ Azpeitiko efemerideak, erdi prezioan (nahi baduzu).
▶ Mendi gida, erdi prezioan (nahi baduzu).
▶ Euskarazko prentsa eta Azpeitia liburuak.
▶ Literatuzta.
▶ Urola-Kostako Hitza.

*HARPIDEDUNAK ▶

Ez du diruz laguntzen.
Jasoko dituzu.
▶ Uztarría eta Hitza.

JOAN...

Gurean ▶
PELLO AÑORGA

▶ ipuin kontalaria

“Urte asko dira hona natorrela”

Pello Añorga oiartzuarra izan zen joan den irailaren 20an gurean: umeekin izan zuen hitzordua Enparan dorretxean.

Askotan izan al zara hemen?

Urte asko dira ipuin kontaketak egitera Azpeitira etortzen naizena. Gogoan dut etorri nintzen lehen aldian plaza ondoan zegoela liburutegia. Orduz geroztik askotan izan naiz.

Urtean zenbat aldiz etorri ohi zara?

Urtean pare bat emanaldi ematen ditut. Nor-malean, 3-4 urte-tik hasi eta 9 urte arteko umeei zuzenduak izaten dira. ▶



Labakaren lehen partida

Urriaren 24an, Mikel Labaka futbolari azpeitiarrak estreinakoz jokatu zuen Espainiako Lehen Mailako partida ofizial bat, Realarekin. Anoeta estadioan, Mallorca taldearen aurka, eta 2-1 irabazi zuen Realak. Titular jokatu zuen Labakak, zentral, eta ondo aritu zen. Argazkian, azpeitiarra partida hartan erabili zuen elastikoarekin.



Bordaren ‘Birika zatiak’

Xabier Borda azpeitiarrak bere lehen liburua aurkeztu du: *Birika Zatiak*. Liburua poema bilduma da eta Donostiako Udal Liburutegian aurkeztu zuen, urriaren 8an. Liburua Susak argitaratu du.



Merkatal gunerik ez

Garmendipe auzoan, kiroldegia eta futbol zelaiaren artean, merkatal gune bat egiteko proposamena jaso zuen Udalak. Herriko merkatariek euren ezinegonaz azaldu zuten. Udalak ez du onartu.

Mugikortasun Astea argazkitan

Mugikortasun Astearen egindako Argazki Rallyko sariak banatu ziren urriaren 23an, Betharramdarretako elizan. Erakusketa ireki zen gero. Lehen saria, Aitor Zubeldiak irabazi zuen.



URRIAK 6 ▶ Miren Odriozola azpeitiarrak eta Xarlo Etxezaharreta hazpandarrak Espainiako Auzitegi Nazionalen Udalbiltza auziagaitik eginiko akusazio guztiak ukatu zituzten. **URRIAK 15** ▶ Iaz *Takolo beka* irabazi zuen Xabier Ormazabal urretxuarra Cho Oyun hilda aurkitu zuten. **URRIAK 20** ▶ Xabier Etxeberria *Txapi* Fresneseko kartzelatik Mureteko kartzelara eraman zuten; Frantzian dago hori ere. **URRIAK 24** ▶ Joseba Albizu eta Jokin Ormaetxea ziklistek auto istripua izan zuten; Ormaetxea azkoitiarra hil egin zen.



...ETORRI



Besterik ▶

AZAROAK 2-19 ▶

Erakusketa.

- ▶ 18:30etik
- 20:30etara.
- ▶ Antxieta Etxean.
- ▶ Kutzak antolatuta.



AZAROAK 26-27-28 ▶

Mendiko material azoka.

- ▶ Bigarren eskukoa.
- ▶ 18:00etatik-21:00etara.
- ▶ Lagun Onak-eko elkartean.
- ▶ Lagun Onak M.B.-k antolatuta.



AZAROAK 3-4 ▶ Duela bi urteko Elegante Egunean Jose Mari Bastida orduko alkatea eta gazteek izandako liskarreatatik, bederatzi gazte epaituko dituzte, Donostian. **AZAROAK 7** ▶ Salatxo abesbatzakoek kontzertua eskainiko dute Esklabetan, 12:45ean. **AZAROAK 15** ▶ Itsasi Euskal Kultur taldeak, urtero bezala, dantza suelto ikastaroari hasiera emango dio. 21:00-22:00ak bitartean izango dira klaseak, Itsasiko lokalean. **AZAROAK 21** ▶ Lagun Onak M.B.-k antolatuta, Ataun-Lizarrustira egun guztirako mendi irteera.



ANTZERKI TOPAKETAK.

Antzerki Topaketetan XXII. edizioaren barruan *Maritxu nora zoaz eder galant hori Azpeitira Bartolo nahi badezu etorri* aurkeztuko da, Azpeitiko aktoreekin eginiko jaialdi berezia da.

AZAROAK 20 ▶ 21:30ean ▶ Soreasu antzokian ▶ Azpeitiko Udalak antolatuta.

HARITZ ETXEBERRIA ▶ bertso parrandako antolatzaile taldeko kidea

“Larunbat gaueko bertsolariak plazaratzea da helburua”

Azaroaren 5ean Korrale tabernan hasiko da Bertso Parranda, eta abenduaren 10ean Mendizaleetako tabernan bukatuko. Aurtengoa bigarren aldia izango da Erriarraitz Bertsozale Elkartek txapelketa hori antolatuko duena, aurrekoa orain bi urte antolatu baitzuen. Haritz Etxeberria *Ministro* txapelketa antolatzen ari den taldean dago. “Bertso Parrandaren antolatzen hasi ginenean, larunbat gauean bertsotan ibiltzen den jende hori plazaratzea zen helburua”, dio.

Parte-hartzeari dagokionez, jaitsi egin da talde kopurua. “Aurrekoan baino talde gutxiago izango dira aurtengoan lehian. 2002an zortzi taldek hartu zuten parte eta aurtengoan, berriz, sei izango dira”. Izan ere, “orain bi urte bertso saio serioak egin genituen,

parrandatik ez zuen gehiegi izan eta jendeak estuasun handiak pasatu zituen, eta horregatik nik uste aurtengoan jende gutxiagok eman duela izena”. Parte-hartzaileei dagokionez, “17 urtetik hasi eta 28ra bitarteko jendea dago, eta nahiz eta guztiok ez izan azpeitiarrak, badira inguruko herrietakoak ere”. ◀

AZAROAK 5 ▶ Bertso Parranda.

- ▶ 23:00etan.
- ▶ Korrale tabernan.
- ▶ Erriarraitz Bertsozale Elkartek antolatuta.

LAXARO AZKUNE ▶ irratia esataria

“ Irratiko aroa bukatu da eta burua ez dut irratian pentsatzeko ”

▶ Testuak eta argazkiak: Ihintza Agirretxe



I railaren 6an esan zion agur irratia Laxaro Azkunek. 21 urte Herri Irratiko uhinetan pasa ondoren, orain itzulpengintzan trebatzea tokatu zaio. Uztarrria bere lan berriko lehen egunean egon zen harekin, eta bere irratiko aroari buruz aritu zen.

Ikasketaz irakaslea zara, eta irratigintzara kasualitatez sartu omen zinen.

Soldadutzatik bueltan Azpeitiko Ikastolan hasi nintzen lanean. Han 8 urte neramatzala, Joxe Mari Iriondo telebistara joan zen, eta lanpostu deia egin zuten Loiola Irratian. Ni ez nintzen enteratu ere egin, baina irratia horretan lagunak nituen, eta askotan egiten genuen topo. Egun batean, Juanito Arregik esan zidan: “Hiretzat lan polita zaukaat ba irratian”. Orduantxe azterketak zuzentzen nazkatuta nenbilen, eta “bai, hemen umeen artean ibiltzea baino txarragoa ez duk izango” bota nion. Eta horrelaxe, tentazioa sortu, eta neure buruari “zergatik ez?” behin eta berriz galde-tu ondoren, izena eman nuen. Gero, azterketa egiteko hots egin zidaten, irakurketak eta elkarrizketa moduko proba batzuk egin, eta barrura.

Zer egin zitzaizun zailena hasieran?

Sartu ginenok inolako prestaketarik ez genuen, eta hemen ere ahal zuten neurrian lagundu gin-

tuzten. Niretzako, lanik gogorrena ordura arte Joxe Mari Iriondok egiten zituen kirol erretrasmisiolak, aizkora probak... hark bezala jarraitzea izan zen.

Hasieran kolaboratzailer izan zinen. Nola eman zenuen esatari izateko pausoa?


Lanean hasi nintzenean sei esatari geunden irratian, eta, normalean, programa arduradunak Karmelo Otaegi edo Txema Auzmendi izaten ziren. Orduan programaburu zegoenari laguntzen genion, haren programako zati batzuk eginez. Neure lehen irratisaioa *Txinpartak* izan zen. 20:30etik 22:30era izaten zen. Egundoko ilusioarekin hasi nintzen, eta bizpahiru urte egin nituen zuzenean. Nik uste dut formula egokia zela garai hartako irratia entzulearentzat. Gainera, garai horretan eta ordu horretan euskaraz egiten ziren programen artean toki ona zuen.

Zein izan dira zure lanak?

Horretaz gain, bertsolaritza, trikitilariak eta herri kirolak jarraitu izan nituen garai batean. Bestetik, Herri Irratiko euskara arduradun ere izan naiz; eta asteburuetan, gogoratzen naiz urte batean Gipuzkoako herri gehienetako alkateak elkarriketatu nituela. Aurretik Txemak egiten zuen programa, *El alcalde al habla* edo horrelako izenen batekin, eta gero ni hasi nintzen *Alkateekin berriketan* egiten. Beste programa bat *Sustraiak* izan zen. Grabatutako programa zen, eta lehengo lanbide zaharrez hitz egiten genuen. Nekazaritzaren inguruko tertulia bat ere egin izan dut.

Programa guztiak euskaraz egin dituzu, ezta?

Oso momentu puntualetan bakarrik egin izan ditut elkarriketak gazteleraz, batik bat neuk ez dudalako erraztasun gehiegi, eta ez naizelako eroso sentitzen. Behin baino gehiagotan esan dut, erdaraz zerbait egin behar bada beste



batek egiteko, alderantziz ere askotan gertatzen delako. Erdaraz bakarrik egiten dutenak badaude, eta nik beti hori eskatu izan dut, eta ez didate ukatu.

Beti euskal munduaren inguruan egin duzu lan. Izan al duzu beste aukerarik?

Saltsero samarra izan naiz, eta beti ibili izan naiz mundu horretan. Beti pentsatu izan dut euskaldun izaeraren arrasto nagusi moduan ikusten nuen mundu hori komunikabideetan baztertuta zegoela. Nik inguru hori oso gertu ikusten eta sentitzen nuen, ni ere baserritarra naizelako; eta zaletasunak ere alde horretakoak izanda, uste nuen inguru horren alde egin nezakeela ekarpenik handiena. Ez dut beste alor batzuk lantzeko ez gogorik ezta proposamenik ere izan. Baina inork proposatu balit ere, ez dakit.

Damutu al zara inoiz irratian sartzeaz?

Damurik ez. Behar bada, irratigintzan egin nitzakeela uste nuen gauza asko ez ditudala lortu, horixe pena bakarra. Behar bada gauza gehiago egin zitezkeen, baina nik egin dudana hori mundu horren alde egin dut, eta mugak izan ditut. Pena hori bai, baina irratia sekula amestu ez nuen mundu bat eman dit.

Zein ziren hasierako helburu horiek?

Helburuetako bat, Herri Irratian euskarak sartu nintzenean baino ►

Kontuak eta komeriak

1985eko txapelketa. "1985eko bertso txapelketa antolatzen hasi zen garaian, ni ere bileretan nebilen eta aurkezle zein izango zen galdetu zutenean, Xebastian Lizasok 'Laxarok egingo du hori' erantzun zuen. 'Nik ez diat inoiz egin hori!' erantzun nion; 'hurrengoan ez duk esango horrelakorik' esan zidan. Eta horrela hasi nintzen aurkezle. Gogoan dut 1985 urtean egin nuela ekitaldi baten aurkezpena Azkoitian, eta neure buruari ezin helduta egon nintzela, hankak dardarka nituen, ez dakit beste inork konturatu zen, baina sentsazio hori ez zen ederra izan. Horrela hasi eta finalean Belodromoan aurkeztu nuen".

Argia Sariak. "Beste anekdotako pozgarri bat 1993. urtean irabazi nuen Argia sarietan gertatu zitzaidana da. Urtero joaten nintzen Argia sarietara, urtero gonbidatzen gintuzten eta beti joaten nintzen irabazleen hitzak eta adierazpenak grabatzera. Normalean irabazleak jakinaren gainean egoten dira eta propio saria jasotzera joaten dira. Nik irabazi nuenean, nik ez beste guztiek zekiten ni nintzela irabazleetako bat. Ba zekitenez ni joango nintzela, ez zidaten esan ni izan nintzela sarituetako bat. Ni han nenbilen bazkaria bukatu zenean nire mikrofonoak jarri eta neure lanetan. Lehenengo ez dakit ze sari banatu zuten, telebistakoa edo prentsa idatzikoa, eta gero irratikoa etorri zen eta izena esan zutenean 'zer, zer esan du?' galdetu nuen, 'hi haizela irabazlea' erantzun zidaten. Momentu hartan egundoko sustoa hartu nuen eta ez nintzen gauza izan ezer esateko ere, pasa-pasa eginda gelditu nintzen".

» presentzia handiagoa izatea zen; bai programetan, eta baita euskararen planteamendu orokorrean ere. Hori ez da lortu, eta nahiko nuke egunen batean lortuko baltiz, baina badakit irratia berak ere ez dituela gauzak erraz izan.

Denbora honetan guztian asko aldatu al da irratia?


Soprote teknikoak asko aldatu dira, eta, horiek aldatu diren heinean, lan egiteko modua aldatu egin da. Lehen programa bat egiteko hiru lagun behar baziren, orain bakarrik egin dezake lan bera. Niretzat produktu landuagoak egin zitezkeen lehen, denbora gehiago zenuelako zeure alorrera dedikatzeko. Ez da berdin programa batean dena zuk egitea edo elkarrizketa egiten ari zaren momentuan horretaz bakarrik arduratzea.

Irratia modernizatu behar dutelako, irratitik kanpo zaude. Euskal mundua eta modernitatea uztartu ezin al dira?

Dudarik ez dut uztartu beharra daudela, Euskal Herriak euskaldun izaten jarraitu behar badu, eta euskaldungoak irabazi dituen espazioak sendotuko baditu.

Zer da irratian ikasi duzun garrantzitsuen?

Jendearen aurrean hitz egiterakoa, zer esan baino gehiago, aurrean zein duzun, zer irudituko zaion... pentsatzen duzu, eta horrek burua blokeatzen du. Hori niri ez didate erakutsi, eta ez dakit



Datua ▶

21

URTEAN.

1983. urteko udan hasi zen Herri Irratian lanean, eta joan den irailaren 6an esan zion agur entzulego osoari. 21 urte pasatu ditu irratiazen uhinetan Laxaroren ahotsak. Argazkietan Loiolako emisoran azaltzen da. Eskuineko argazkian, Kaxiano musikaria zenarekin ageri da.



LUBA

- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 45

Tel.: 943 15 75 25 Fax: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

KIRURI

JATETXEA

Loiola hiribidea, 24

LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa: 943 81 56 08

Faxa: 943 15 03 62

ARTE
ETA DISEINU
IKASTEGIA

> Talla 19:30/21:00
> Pintura
(helduak) 17:30/19:00
> Dibujo eta eskulanak
(haurrak) 17:30/19:00

Ikasturte hasiera: urriak 4
Matrikula: 17:30etatik 19:00etara,
astelehenetik ostegunera

Julian Elorza 4 - 1
669 414 025
beapozo@euskalnet.net

ORDULARI

Jose de Artetxe, 10
Tel. 943 81 52 44
20730 AZPEITIA

“Hasieran nuen helburuetako bat euskarak presentzia handiagoa izatea zen, baina ez da lortu”

“Lan berean dedikazioa osoa izango dut orain, eta beldur pixka bat ere badut”



“Irratiak neure buruarengan konfidantza handiagoa eman dit”

gaur egun horrelakorik irakasten duten. Normalean, pertsona bat mikrofono aurrean jarri eta zertan ari den ahazten duenean, askoz ere hobeto hitz egingo du.

Zer eman dizu irratiake urte hauetan?

Neure buruarengan konfidantza handiagoa. Beti izan dudana defizita da hori. Jendearen aurrean ibiltzerakoan, lotsa, beldurra edo segurtasun falta. Horretarako, ez dut uste horrelako beste heziketa lekurik dagoenik.

Nola pasatzen da lotsati izate-tik plaza gizon izatera?

Nik aurretik Iriondok eginiko ibilbidea nuen; gai jartzaile ibiltzen zen, aurkeztzen ibiltzen zen, Loiola Irratian lan egiten zuen... Eta ni haren partez edo hark egiten zituen lanak egitera sartu nintzen. Lan batzuk lotuta etorri zitzaizkidan. Niretzat erronka izan zen hori dena, eman zidaten aukera hori aprobetxatu nuen. Lehenengo aldiz hain gaizki egin ez duzula ikustean, jarraitu egiten duzu.

Zerbait gehiago eman al dizu?

Askotan arduradun agertzen diren pertsonak, politikoak, udalakoak..., agerpenetatik jaso-

tzen duzun iruditik dituzu ezagun. Gero, hurbilean, elkarriketa batean, hain ondoan sentitzen dituzunean konturatzen zara dagoen ezberdintasunaz.

Eta zer kendu dizu?

Faltan bota izan dut lan eguna bukatu, etxera joan eta lanarekin bukatzea. Beti izan baitut zerbait zintzilik; agian hurrengo egunerako zerbait izango zen, edo pertsonaren bat nondik nora lokalizatu daitekeen pentsatu beharko nuen, edo asteburu horretako bertso saioa grabatu behar al dudana pentsatu beharko nuen...

Zein izan da 21 urte hauetako unerik gaziena?

Garai batean bazen Azpeitian irrati libre bat, eta arazoak izan zituzten emisioak emateko. Hurbilena Loiola Irratia zutenez, hona etorri eta komunikatu bat irakurri nahi izan zuten. Programan zegoenak ez zuen nahi izan mikrofonoa irekitzerik, eta orduan artxi-boak, kasetak... hartu eta eman egin zituzten. Nik hura nire programan salatu nuen. Beste zenbait salaketa ere egin izan ditut, politika mailakoak-eta. Momentuan pentsatu dudana esan izan

dut, eta mikrofono aurrean gauzak pentsatu bezala esateak arazo batzuk ere sortzen ditu. Niri gertatu izan zait zerbait esan eta gero norbaitek hots egitea, min egin diolako nik esan dudanak.

Une gozorik ere izango zenuen, ezta?

Argia saria jasotzea izan zen une gozoetako bat, 1993an. Eta badut une gozoak pasarazi dizkidan irrati kritiko bat. Egunkarietan nire irrati saioei eginiko kritikak beti ni gorestekoa izan dira, hori eskertu beharrean nago Xabier Lasari. Horrelako kritikoek agian pentsatuko dute besteak ez di-tuela leitzen, baina nik denak edo ia denak irakurri ditut.

Orain gutxi esan duzu, kasu puntualetan ez bada, ez zarela bueltatuko irratiara.

Momentu honetan dudana planteamentua ikastolatik irratiara pasatu nintzenekoa bezalakoa da. Irratiko aro hau bukatu da, eta orain burua ez dut irratiaren pentsatzeko. **Irratitik aparte beste kazetari-tza era bat egiteko prest izango al zinake?**

Kazetari, erabat horretara dedikatuta... Ez zait aukerarik suerta-

tu, eta aukera etorrita ere ez dakit zer esango nukeen. Ez naiz, ez prestaketaz ez ikasketaz, prentsa idatzian trebatua. Tarteka kolaborazio batzuk egin ditut, baina berez idazle alferria naiz. Eskatuta egin izan ditut artikulua, eta gus-tura gainera, baina berez idazteko hori ez zait sortzen.

Zer egingo duzu lan berrian?

Irakasle nintzenean tokatu izan zitzaidan eskolako materiala itzultzea, baita *Los Cinco* liburuak itzultzea ere. Nik bi itzuli nituen. Irratian ere egin izan ditut itzulpen lanak, baina ez ditut eguneko zortzi ordu itzulpenak egiten inoiz pasatu. Orain itzulpengintzan arituko naiz erabat, horretarako euskarako arau berriak ikasi beharko ditut, eta erronka berria da. Lan berean dedikazio osoa izango dut orain, eta beldur pixka bat ere badut, beti izan bainaiz saltsa askotako gauzak egin zalea.

Zer itzuliko duzu?

Jesuitek beren erakundearen artean erabiltzen dituzten komunikazioak itzuliko ditut, oraingoz. ◀

elkarriketa osoa
www.uztarria.com-en



kutxa

gizarte ekintza



domus



DEKORATZAILEA

Urola kalea, 1 pabilioia 4 - 1
20730 Azpeitia
Telef. eta faxa: 943151346

Antxieta Etxeak 1979ko otsailaren 10ean ireki zituen ateak, kultur ekintzak egiteko. Etxea Kutxak gizarte ekintzak bideratzeko dituen erai-kin historikoetako bat da –Azpeitian badu beste bat, Udalari utzita, Enparan dorretxea–.

Imanol Eliasek 25 urte eta erdi eman ditu Antxieta etxeko ardura-dun lanetan. 1992an aurrejubila-zioa hartu eta lana laga bazuen ere, Itziar Oiarzabalek, Imanolen emazteak hartu zuen ardura, eta, ofizialki utzi arren, bertan jarraitu izan du Imanolek azken urteotan ere. “Hasiera batean, eraikinaren egokitze lanak zaintzen ibili nintzen. Behin obrak bukatuta, hemen antolatu zen lehenengo erakusketa jartzen ari ginela, *Certamen de artistas noveles* dela-koa, Jose Maria Setienek, garai hartako Gipuzkoako gotzain nagusiak, hitzaldi edo bilera bat egi-teko gela eskatu zuen”.

Herriko gazteenek Antxieta Etxea erakusketa gune gisa ba-karrik ezagutu duten arren, beste-lako ekintzetarako ere erabili izan da Antxieta etxea: “Hitzaldiak, zi-nema saioak, kontzertuak..., de-netik izan da. Antxietan giro bat sortu nahi genuen, eta pintura al-detik ere mugimendua sortu zen. 1992 arte gauza asko egin ziren”.

► **EKIMENAK.** “Zinema ema-naldiak asteburuetan antolatzen genituen. Ateak irekitzeko ordua baino askoz lehenago ume mor-doa biltzen zen etxearen atarian. Gero, nik barrutik atea irekitzen nuenenean, denak korrika igo-tzen ziren goiko solairura. Peliku-lak batzutan zahartuak egoten ziren, eta emanaldiaren erdian pelikula apurtzen bazen, sekula-ko iskanbila sortzen zen umee-kin”, dio Imanol Eliasek.

Antxieta etxea parroki aurrean egonik, pasadizoan jende asko hurbildu izan dela gogoratzen du Eliasek: “Duela urte batzuk, aste-buruetan Antxieta irekita izaten zen. Igande goizetan, meza ondo-ren, jende dezente biltzen zen

KULTURAK

agur antxietari

25 urtean kultur ekitaldietarako gune izan da Antxieta Etxea, baina norabidea aldatuko du azaroan

► Testuak: Ainitze Oruesagasti




ITXI.

Azaroaren 2tik 19a izango da azken erakusketa Antxietan, herri kirolen ingurukoa, eta Kutxako Fonotekako argazkiak izango dira ikusgai. 19an betiko itxiko ditu ateak erakustoki zaharrak. Argazkian, Imanol Elias arduraduna.



hemen. Urteak aurrera joan ahala, ordea, elizatik ere jende gutxiago pasatzen hasi zen, eta, ondorioz, hemendik ere bai. Horrela, igandetan inor gutxi ibiltzen zela ikusita, ixten hasi ginen, eta berandua-gorri berriz, larunbatetan ere bai”.

Urteotan erakusketa ugari izan da Antxieta Etxean. “Margolari askoren artelanak erakutsi dira, herriko zein kanpoko margolarie-nak. Eta obra asko eta asko saldu dira. Gogoan dut Okina margola-ri bergararraren artelan guztiak saltzen zirela. Zenbait lan erakus- ketaren lehenengo egunetik



saldu izan dira, gainera. Salabe-
rriaren lanak erakusgai jarri aurretik,
alarma instalazioa jarri behar izan zuten”,
dio Imanol Eliasek.

Baina zinema emanaldi, argazki lehiaketa,
erakusketa eta abarrez gain, beste hainbat gauzatarako ere erabili izan dira Antxieta Etxeko lokalak. “Azkenaldian, irakasle talde batek ikastaroak egiteko erabiltzen zuen goiko aretoa, baina hori baino lehenago bilera asko egiteko erabili izan da eraikin hau. Herriko elkarte asko hermingo aretoan egin izan diren bileratan sortuak dira”.


Antxieta Etxean egin eta antolatutako diren ekintzen martxa asko aldatu da. Denborarekin, ekintzak gutxitzen joan dira; erakusketa gune izatera mugatu dela esan daiteke, azken batean. “1992ra arte ekintza ugari antolatu genituen hemen. Nik kanpoko jendearekin harremanetan jarri behar izaten nuen, mendi astea, diapositiba lehiaketak eta abar antolatu ahal izateko. Gogoan dut, behin, euskal sukaldaritzaren inguruko hitzaldi bat antolatu nahi nuela, eta horretarako Subijana, Castillo eta Argiñanorekin jarri nintzela harremanetan. Sukaldaritzaren modernoa zen hitzaldi hartan jorratu beharreko gaia. Garai hartan Karlos Argiñano ez zen gaur egun bezain ezaguna, eta hitzaldian parte hartzeko proposamena luzatu nionean ezetz esan zidan,

Datua ▶

1979

URTEA.


1979ko otsailaren 10ean ireki zuten Antxieta Etxea, kultur ekitaldiak egiteko asmotan. 25 urteotan herritar ugari bisitatu dute etxea.



Bisitariak

URTEZ URTEKO DATUAK ▶

1979. 10.622.
1980. 18.184.
1981. 21.043.
1982. 22.181.
1983. 21.930.
1984. 18.708.
1985. 14.625.
1986. 15.723.
1987. 12.653.
1988. 15.585.
1989. 14.257.
1990. 12.289.
1991. 13.011.



berak jendearen aurrean bakar-bakarrik ordu erdiz hitz egiteko gaitasunik ez zuelako. Tokitan geratu da orain”, adierazi du Imanol Eliasek.

▶ **ETORKIZUNA.** Antxieta Etxearen etorkizunari bide berriak ikusten zaizkio etorkizun hurbilean. Izan ere, Kutzak eraikina Atzegiri, Adimen Urriko Pertsonen Aldeko Gipuzkoako Gurasoen Elkarteari, emango dio. Horrela, Ku-

txak eraikin hori beste gizarte ekintza batera bideratuko du.

Bestalde, urte hauetan antolatutako den Antxieta argazki lehiaketaren –Inauterietako sokamuturren inguruko argazki lehiaketa– etorkizuna ez dago argi. “Nik ez dakit zer pasatuko den argazki lehiaketarekin. Argazki taldeko kide batzuekin hitz egin dut horren inguruan, baina aurrera begira lehiaketarekin zer pasatuko den ez dakit”. ◀

500 pertsonaia LIBURUAN

Imanol Elias idazleak herriko eta kanpotik etorritako 500 pertsonaiatik gora bildu ditu bere azken liburuan

▶ Testuak: Ainitze Oruesagasti

Azpeitia 500... (azpeitiarrak eta herriarekin bat eginak) izenburupean, Imanol Eliasen azken liburua kale-ratuko da azaroaren bukaeran. Liburuaren izenburuak dioen moduan, Azpeitiko herriaren alde lan egin eta hura ezagutzera eman duten bertako eta kanpotik etorritako 500 pertsonaien biografiak biltzen ditu liburu honek. Egilearen esanetan, pertsonaia gazte gutxi nabarmendu ditu: "Izan ere gazteek aurrera begira gauza gehiago egin ditzazkete", nahiz eta batedo beste badiren.

Liburu hau egiteko ideia, Parrokiko Soledadeko kaperan konponketa lanak egiten hasi eta lurreko zenbait ohol kentzean agertu ziren hezur batzuk ikusi zituenen sortu zitzaion Eliasi. Une hartan, gustura jakingo omen zuen norenak ziren hezur haiek. Horrela bada, duela hiru urte inguru hasi zen datu eta informazio bila. Parrokiko eta udaletxeko datu artxiboetan, eta zenbait liburutik bilatu duen informazioarekin baliatu da Imanol Elias liburua osatzerakoan.

Egilearen hitzetan, liburua inoiz norbaiten inguruan entzundako

Liburua

LIBURUAREN DATUAK ▶

Izenburua. *Azpeitia 500... (azpeitiarrak eta herriarekin bat eginak).*

Egilea. Imanol Elias.

Hitzaurrea. Pako Garmendia Xamartin.

Argitaratzailea. Azpeitiko Udala.

Orrialde kopurua. 300 inguru.

Aurkezpen eguna. Azaroaren 20an.

Lekua. Udaletxeko areto nagusia.



Karmelo Etxegarai.



Andoni Albizu Katxo.



Patxi Azkargorta.

kontuak irakurri eta jakinmina asetzeko egokiagoa da. "Zein ote zen beste hau?" eta horrelako galderak erantzuteko eta barruko arra asetzeko balio dezake liburua.

Garai ezberdinetako 500 pertsonaia baino gehiago, eta batzuk beste batzuk baino ezagunagoak. XVI. mendeko herriko sorginak, herrian alkate izandakoak, apaizak, kirolariak, artistak, herri-tik kanpora esploratzaile lanetan ibilitakoak... Denetik bildu ditu Imanol Eliasek azken liburuan.

▶ **PERTSONAIAK.** 500 pertsonaia inguruli liburu batean bilduak. Horietatik 35 bakarrik dira emakumeak, eta 150 bizirik daude. Guztiek elkarrekin amankomunean dutena, Azpeitia.

Ziriako Agirre, gerra garaian Azpeitiko alkate izandakoa, Andoni Katxo Antxieta Jakintza Taldea sortu zuena, Karmelo Etxegarai historialaria eta idazlea, Jose de Iturria Venezuelara esploratzaile lanetan joandakoa eta Patxi Azkargorta bergararra dira horietako batzuk. ◀



ZUHATZ BAKANAK.

Ez dira ez dagoeneko zuhatz asko ikusten inguruetan, baina oraindik ere baserri batzuetan zuhatzak egiteko usadio zaharrari jarraitzen diote. Gaur egun traktoreek egiten dituzten belar bolak kendu diote lekua belar meta horiei. Zuhatzak belarrez eginak daude, baina mendian oraindik ere garoz eginikoak topa daitezke tarteka. Politak dira, baina gero eta gutxiago ikus daitezke. Argazkikoak, Errezil bidean daude.

► Testua eta argazkia: Ihintza Agirretxe

Efemerideak ▶ azaroa



Ezkerretik eskuinera, Garatxabal harri-jasotzailea, Lizaso eta Agirre.

dena herriaren ONERAKO

Urrestillari herria izateko aukera eman zitzaion; beste neurri batzuk ere hartu ziren

▶ Testuak: 'Azpeitiko efemerideak' liburua (Imanol Elias-Uztarria)

1737- AZAROAK 1 ▶

Urrestillako auzoak herri izateko aukera. Urrestillari herria sortzeko eman zitzaion agindua-ren berri adierazi zen, beti ere Elosiaga eta Nuarbe auzoekin bat eginik. Aratzerreka eta Matxinbenta auzoek, berriz, ordura arte bezala jarraituko zutela adierazi zen.

1942- AZAROAK 9 ▶

Ijitoak ermitarik gabe. Perdillegi eta Aldakaitzeko ermitak ijitoak bertan gelditzeko bakarrik zirela kontuan hartuta, haiek botatzearabaki zen.

1857- AZAROAK 14 ▶

Hilerria herrian. Azkenaldian herriak izan zuen biztanlegoaren gehitzeaz jabeturik, eta hilerriak orduan zeukan lekua txiki gertzen zela-eta, bertarako bidea egokitu beharrean izanik, Udalari beste hilerri bat egokitzea erabaki zuen, baina aurrez gaiari buruz sendagileei iritzia eskatu.

1970- AZAROAK 21 ▶

Garatxabal harri-jasotzailea.



Gaur egungo herriko hilerria.

Joxe Odriozola *Garatxabal* harri-jasotzailea hil zen.

1575- AZAROAK 29 ▶

Txerriak kontrolik gabe. Txerriak inolako ordenarik gabe hazten ziren etxe barruetan eta ukui-luan, bai herri barruan eta bai errebaletan, eta horrek eragina izan zezakeen denen osasunean. Hori zela-eta, agindu zen abenduaren 8a baino lehen txerri guztiak hiltzea. Denek hala ez eginez gero, hil egingo zituztela esan zen, bakoitzaren jabeari lau errealeko isuna kenduz. ◀

Pertsonaia ▶

MORILLO.

Fernando Morillo idazle azpeitiarrak *Izar Malkoak* lanarekin haur eta gazte literaturari dagokion Euskadi Literatura saria jaso zuen Gasteizen, 2003ko azaroaren 18an. Morillok irabazitako sari garrantzitsuena izan da hori.


Datua ▶

5

URTE UZTARRIA ALDIZKARIAK.

Uztarría Azpeitiko herri aldizkariak bost urte beteko ditu azaroan. 1999ko azaroaren 5ean kaleratu zen 1. zenbakia. Bost urte horietan urtero 11 zenbaki atera ditu, eta 2004ko azaroko zenbaki hau, 56.a da. Aldizkariak hiru diseinu izan ditu bost urteetan.

Argazkia ▶



AITA SANTUA LOIOLAN.

1982ko azaroaren 6an, orain dela 22 urte, Juan Pablo II.a Aita Santuak Loiola bisitatu zuen. Aita Santua goizean Gasteiztik hegazkinez etorri zen, eta hiru ordu beranduago Xabierreara abiatu zen. Bisitaldira 150.000 pertsona inguru hurbildu ziren.

Kontua da... ▶

Esker mila!



Imanol Elias
Odriozola

Ahoz aho dabilen albistea da: Antxieta etxea itxi aegingo dela. Horrela dirudi, eta azaroaren amaierarako, gainera. 1979ko otsailaren 10ean zabaldu zuen Kutxak, kultur ekintzetarako. 26 urte inguru egin ditu zabalik, eta denboraldi horretan bitarteko lanean aritu garenez, eskerrak eman beharrean aurkitzen gara. Eta ez lanpostua bertan izan dugulako, baizik eta, herritar bat gehiago bezala, Kutxak Antxieta etxearen bidez eskaini dizkiolako Azpeitiari eta Urolari kultur-ekintza ugari eta bereziak. Gaur egun Azpeitian nabarmentzen den arterako zaletasunak, zerbait zor dio Antxieta etxean eginiko lanari.

Ongi dakigu ekintza bat antolatzeak bere kostua duela, ezkutuan gelditzen dena seguruenik, eta Antxieta etxean Kutxaren aldetik aurrera eraman direnak ere ez direla izan hutsaren truke. Eskertzekoa da hark herriari ez ezik bailarari eskaini diona ia hogeita

sei urtean. Kontuan izan behar da beste herri bat aukera zezakeela eskaintza berdina egiteko, baina kontua da Azpeitia aukeratu zuela. Mila esker!

Bitarteko lan horretan aurkitu dugu laguntzaile franko, herritarrak, animatu gaituztenak zenbait gauza aurrera eramaten, eta haiek ere eskertzen ditugu bihotzez. Guztion artean egin dugulako posible hainbeste urtean Antxieta etxeari bizirik heltzea.

Orain erabat aldatuko da Antxieta etxearen zerbitzua, guk dakigula behintzat. Kultur ekintzak alde batera utzi eta beste era batetako gizarte ekintza eskainiko da bertan. Bide berri bati ekingo dio.

Zerbait galtzea nahigabetsua da, eta, kultura tar-tean bada, gehiago. Hitzaldi aretoa isil eta ilun geldituko da, erakusketa aretoa zuri, beste toki baten beharrean herria... Irtenbide bat aurkituko dutelakoan, Kutxa eta lagundu diguten guztiei, esker mila!

Garai bateko Azpeitia ▶ Maritxu Unanuek kontatua

antzerkia eta DANTZA

Ez ziren garai errazak, eta ez zen erraza euskal munduan eta euskal kulturaren parte hartzea, baina bazen jendea horretarako

▶ Testua: Ihintza Agirretxe

Maritxu Unanue txiki-txikitatik ibili izan da euskal kulturaren inguruan. Azpeitiko kalean jaiota Jesuitinetan ibili zen eskola. Eskola bukatu eta josten ikasten ibili zen. Gaztetan hasi zen kulturaren munduan mugitzen, eta oraindik badu indarra antzerkia eta kultura bultzatzeko.

"14-15 urte nituela, Oargi euskal dantza taldean hasi nintzen dantzan. Garai horretan, dantzan ibiltzen ginenok kanpora irteteko desiatzen izaten ginen, han izaten baikenuen juerga pixka bat egiteko aukera bakarra", dio. Frantziara joatea nahi izaten omen zuten: "Frantziara joatea nahi izaten ge-

nuen, eta arrazoa bakarra izaten zen beti: han ikurrina lasai astintzen genuen, eta garai hartan hemen ezinezkoa zen hori".

Baina kanporako irteera horietan, badu behin ere ahaztuko ez duen kontu bat: "Behin Donibane Garazira joan ginen dantzara, eta handik bueltan Donibane Loitzu-n gelditu ginen. Han musika la-



Dantziariak ikurrin dantza egiten, Loiolan, festa egun batez.

“Frantziara joatea nahi izaten genuen, eta arrazoa bakarra izaten zen: han ikurrina lasai astintzen genuen”

MARITXU UNANUE ▶ erretiratu



saia zegoen, helduta dantzan egiteko, eta gu han hasi ginen dantzan. Bueltan etorri ginenean, norbaitek esan egin zuen gu nola helduta dantzan ibili ginen, eta kongregaziotik bota ninduten. Han ere ez ziren denak lagunak izango.

Dantzan ez ezik, antzerkian ere ibilitakoa da Maritxu. "Enrike Zurutza zuzendari genuela antzeztu nuen nire lehen obra; *Jaunaren bideetatik* zuen izena, gaizki ez banaiz gogoratzen. Hura nire lehen lana izan zen, baina ordundik obra asko egin ditut", adierazi digu. Baina orain ere jarraitzen du antzerki lanetan. Uztarriak entsaio baten erdian harrapatu zuen; orain beste bi gizonzkorekin batera ari da bere hurrengo obra prestatzen. "Ez genuen hirugarren gizonik aurkitzen, eta hirugarren gizonzkoarena neuk egitea erabaki nuen. Bestela, hauek ez zuten ezer egingo", dio ondoko bi gizonzkoei begira.


Oraindik ere Maritxu Unanuek badu zer emanik antzerki eta kultura arloan. ◀

Hitz geizidunak ▶

	Dotoreak	Begira	Nafarroako herria	Garraio mota	Ba... baneuka
	Bibotea du	Afrikako estatua	Zezenak jokatu	Dago	
	Musika nota	Heldu			
	Emakume izena	Aurizki latindar			
Jazarpenak	*IZENA			Oxigenoa	Areago
Burdinbide	*DEITURA			Ipar EH-ko ibaia	
				Sortu zintuena	
				1	
Txukun			Gizon izena		
Bete			Bokala		
		50	Interjekzioa	Erdal hizkia	
		Hortzetako haragia	Atzikia	Norat atzikia	
Aleak, bihiak			X. hil		... egin, goitik ari
Gaiztoa, ankerra			Lehena eta azkena		
				Sail, atal	
				Uranioa	
Suari dariona		Beldurtiak			

* Abeslari azpeitiarra

Pasarte kodetua ▶



Joxean Agirre idazle azpeitiarraren pasarte bat (*Longa kapa beltza*, 1984) azalduko zaizu ondoko lauki guztiak bete ondoan. Joko honetan, zenbakiak hartu dute letra edo hizkien lekua. Letra bat, zeinek berea, hartzen du gehienez zenbaki bakoitzak, eta batzuetan ez dira letra guztiak azaltzen. Zenbaki batzuei dagozkien letrak eman ditugu lagungarri gisa.

I				U			A		
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
N				T			G		
11	12	13	14	15	16	17	18	19	20

9	13	4	4	1	17	2		6	13	9	13	11
	20	8	4	2	6	8	17		16	1	3	15
5		3	1	4	13	11		3	5	17		20
5	13	4	15	13		2	14	2		20	5	13
4	15	13		9	13	6	7	5		3	13	11
1	7	8	11	13	8	11		13	15	8		18
8	6	8	19	1	8		2	14	2	8		18
8	5		9	13	3	13	8	4	13	11		12
8	1	15	8	11		10	5	14	5		13	10
8	15	13	8	11		14	15	2	16			

Soluzioak ▶


Zer da hau? ▶

HITZ GEZIDUNAK

K	A	I	T	U	Z	I	•	A	E	K	•
O	L	R	A	•	A	O	K	I	A	D	S
•	I	R	U	•	K	A	O	L	O	•	
E	B	U	•	T	E	•	L	•	S	E	A
R	O	T	A	•	N	A	P	A	A	•	
A	M	A	•	E	D	B	I	N	E	R	T
•	O	•	A	R	A	N	A	I	•	E	•
U	T	A	•	O	R	E	•	•			
N	U	D	•	T	O	B	I	B	•		
•	A	•	B	•	S	•	B	•			

PASARTE KODETUA

"Herriko lehen farolak piztu ziren zuk fuerte, oso fuerte, heldu zenidanean eta galaxia oso gau heze-aren baitan musu ematean. Stop." **Joxean Agirre**



UZTARRIAREN MAIATZEKO ARGAZKI LEHIAKETA

zein da hau?



Leire Agirre



irabazlea



Patxi Galarraga Uztarriako bazkidea izan da argazki lehiaketako 55. irabazlea. **Urrestilla dendako** erosketa txartela irabazi du sari gisa. Argazkian, Patxi –ezkerrean– eta Urrestilla dendakoa.

ERANTZUTEKO EPEA ▶

Azaroak 19 (ostirala)

NORA BIDALI ▶

Julian Elorza Hiribidea 4, behea

ZER TOKI DEN ADIERAZI ▶

ZURE IZENA / TELEFONOA ▶

IRABAZLEARI SARIA ▶

Bi laguntzat afaria Zuhatten

PARTE HARTZEKO
BALDINTZA ▶

Uztarrian bazkide izan behar da

Amenabar
DENDA

gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97

AZKOITIA

Arana, 5
AZPEITIA

ERLOJU
KONPONKETAK

Tel.: 943 81 47 12

kitzika joyería

Brilanteak - Urre Zuria eta Oria - Festina Urrea

Pastorka Tabernaren ondoan

Jose Arletxe 13 - Tel. 943.15.76.13 - AZPEITIA



Otamendi
Denda

Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49



ORKATX KULTUR ELKARTEA

Erdi Kalea, 24



DIETETIKA ETA ELIKADURA AHOLKULARITZA

LEIRE EZKURRA

dieta pertsonalizatuak

"osasuntsu jaten ikasi"

JONE ETA MAIKAR - Julian Elorza, 7 - Tel 943 81 38 98

Zaindu ▶ Onddoak

Julian
Bereziartua



Inguruan tamaina guztietako onddoak ditugu. Batzuk mikroskopikoak dira, eta kilokoak ere topatu daitezke. Batzuk onuragarriak dira, antibiotikoak lortzeko balio dutenak; beste batzuk hondamendi izugarriak eragin dituzte mundu osoan. Duela 130 urte, onddoek Irlandako patata uzta hondatu zuten, eta milioi bat lagun baino gehiago hil ziren.

Ezaguna da "baserritarren birla" gaitza eragiten duen onddoa. Ondorio larriak sortzen ditu aberak elikatzeko belar ondua erabiltzen dutenen arnas aparatuak. Beste batzuk jangarriak dira, eta kategoria handikoak.

Egunero erabiltzen ditugun elementuak deusezteko ahalmena ere badute. Argi dago, beroa eta hezetasunaren eraginez, elikari kalitatea aldatzen dutela.

Hormetan azaltzen diren orban asko onddoengatik dira. Arkitekturen ere nabarmena da onddoen presentzia, katedralak ere edertasuna galtzen ari baitira. Elizetan argia, hezetasuna eta tenperatura ezin egokiagoak dira mikroorganismo hauentzako.

Kontuz ibili behar dugu gordezten dugunarekin. Ura, argia, airea eta hautsa daudenean onddoak berehala hazten dira.

Oso erasotzaileak dira: lentilak ere aldatu ditzakete. Horregatik, kasu hauetan *onddo-hilkariak* erabiltzea gomendatzen da.

MIREN ALTUNA ▶ lorenzaina

Lore bat?

Larrosa.

Barruan edo kanpoan?

Kanpoan.

Urtaro bat?

Udaberria.

Naturalak edo plastikozkoak?

Naturalak.

Lehorrak edo freskoak?

Freskoak.

Usain bat?

Azuzena edo.

Landarea edo lore sorta?

Landarea.

Zelaian edo ontziko loreak?

Zelaian.

Loreak oparitzeko edo jasotzeko?

Jasotzeko.

Mutilentzako edo neskentzako?

Bientzako.

Lore ponpoxoak edo basatiak?

Basatiak.

▶ Testua eta argazkia: Ainitze Oruesagasti



Abizena ▶ Azpiazu

Armarria.

Haritz bat azaltzen da zelai berde batean. Haritzaren azpian bi soldadu ageri dira, borrokan. Bata zutik dago, eta bestea etzanda. Tente dagoenak eskuan ezpata du, eta eskua altxatuta; bestea lurrean dago, menperatuta, eskuan duen bandera gorria astinduz.

Banaketa semantikoa.

▶ Azpi edo aspi aurrizkiak + -azu, -zu atzizkiarekin osatzen da abizen hau.

Esanahia.

Burdin zatiak egoten diren lekua edo burdin lekua esan nahi du.

Abizenaren kokapena.

▶ Azpeitia.
▶ Azkoitia.
▶ Aizarnazabal.
▶ Santander.
▶ Asturias.
▶ Castilla.

Abizenaren hedapena.

▶ Azkoitia (1825).
▶ Bilbo (1798, 1826, 1830).
▶ Santiago (1726).



Esandakoa ▶

“Zinemaldia espainolista hutsa dela iruditzen zait, argi eta garbi. Euskal aktoreak ez dugu ezer pintatzen”

KONTXU ODRIÓZOLA ▶
aktorea

“Shisha Pangmako gailur nagusira iristea oso ederra zatekeen, baina hobe zen ez egitea txorakeriarik”

IBON AZKUNE ▶
mendizalea

Zenbat ▶

717

ETXALDE.

1988. urtean 852 etxalde zeuden Hazparne eskualdean. Gaur egun 717 soilik gelditzen dira.

K
CONSTRUCCIONES
ANTZIBAR
ERAIKUNTZAK

K
HORMIGONES
LAZKANO
HORMIGOIAK

Gertuko pasadizoa ▶

sermoia dela-eta KARTZELARA

‘Patxi Altuna’ liburutik ▶ Argitaratzailea:
Uztarria Kultur Koordinadora ▶ 2003
▶ Egilea: Josune Etxeberria



misa. Este es un centro católico, ¿no? Pues, yo quiero decir misa, dígaselo al jefe'. Nikuste dut hori dela-eta hasi zirela diligentziak egiten ni handik lehenbailehen beste nonbaitera bidaltzeko. Hala ere, ez nuen lortu meza ematea", oroitzen du Patxik.

Tirabira horren ondoren, gaua lo egin ezinda eman zuen, atxilotetaren zergatia zein izan zitekeen asmatu nahian, ez baitzioten inongo azalpenik ematen gertatutakoari. Goizaldera Espainiako Auzitegi Goreneko langileek esnarazi eta epailearen aurrera eraman zuten. Epaileak: *"Usted ha hecho una apología de los presos de ETA"* esan zion. Patxik: *"¿Yo, de los presos?"* erantzun, Patxi ez baitzen konturatzeko zergatik zioen guzti hori epaileak. Hala, batean akordatu zen zein izan zitekeen egun horretan egin zuen bere apologia, eta epaileari: *"¿Sabe usted cuál ha sido la apología? He terminado el sermón recitando unos versos de un canto a la Virgen que es conocido en todo el País Vasco, y si decir 'Euskal herriko seme gaixoak' es hacer apología..."* gogoratzen du. Egun hartan bertan, 400.000 pezetako isuna edo 90 eguneko kartzela zigorra ezarri zioten. Patxik zigorra ordaintzeko adina diru ez zuela eta, kartzelara joatea erabaki zuen.

KAPITULUA ▶ Donostian bizitako urteak (1963-2001). Atxilotu eta Madrilera. Amak beldurrez ohartarazi bazuen ere, badirudi ordurako nahikoa mintzatu zela Patxi. 1974ko abenduaren 8an, Ama Birjinaren egunean, igandero ohi bezala meza eman zuen. Ama Birjinaren egun hartan, Donostian Poliziak Euskadi eta Askatasunako kideak, ETako kideak, zirela egotziz aste hartan bertan atxilotutako hogeitazaz inguruan hitz egin zuen Patxik bere sermoian, eta egoera hura salatu. Eta egun horretan egin ohi den bezala, sermoia Hortikan zaude Euskal Herriko seme gaixo... abestiarekin amaitu zuen. Elizkizuna amaituta, Azpeitira etorri zen etxekoekin

bazkaltzera, eta arratsaldeko funtziora joan ondoren, beti bezala Donostiara itzuli zen. Etxera, EUTGra iritsi zenean, erretoreak esan zion Polizia bere bila joan zela.

Hurrengo egunean, Patxi komisarian aurkeztu zen, eta atxilotu egin zuten. Eta arratsaldean Madrilera, Espainiako Auzitegi Gorenera eraman zuten. Bertan ziegansartu, eta lotaratu baino lehen tirabira izan zuen Patxik hango funtzionarioekin: "Egunero egin ohi nuen bezala, meza eman nahi nuen eta hala adierazi nion hango funtzionarioetako bati: *'Quiero decir misa'* esan zion. Funtzionarioak: *'¿Qué dice usted!, aquí no hay capilla!'* erantzun. Nik orduan: *'Ah, no sé, yo quiero decir*


PILDAIN
Inmobiliaria
Harzubia 6, behea
Tel. 943812167 - Fax: 943150774
e-mail: javier@pildaininmobiliaria.com


ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK
Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA
Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA


Ekain
ALBAITARI KLINIKA
Euskal Herria, 34
20730 **AZPEITIA**
Tel.: 943 15 16 40
Larrialdia:
943 15 16 40


TORREALDAY
aholkulari kontseilarak
Iberotarren plaza, 7 behea
Tfnua: 943 15 05 09
Faxa: 943 15 16 74
azpeitia@atctorrealdays.com

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO
MARGOAK
Salbe Auzunea, 35 behea
20730 **AZPEITIA** - Urrut.: 943 81 57 81


AIZPURU AUTOAK
Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 **AZPEITIA**
aizpuru@aizpuru.net


Biele


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Telefono zenbakiak ▶

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulategia	81 51 00
Anbul.-larrialdiak	81 12 01
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara (Herriak)	943 31 69 99
Deia (berriemailea)	943 72 57 75
DV (berriemailea)	943 15 09 94
Argia	943 37 15 45

LARRIALDIAK

112

Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemai.)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Kaito Telebista	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
Habea	15 72 00 (138)

EA	81 00 11	Antxieta Etxea	81 35 40
PSE-EE	15 72 00	Kontseilua	943 59 12 00
PP	15 72 00		

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46	Iraurgi	81 02 10
LAB	15 13 56	Iraurgi (Betharram)	81 16 68
EHNE	81 39 28	Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
		Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
		Ikasberri	15 12 46

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18	Karmelo Etxegarai	81 26 97
Udal Euskaltegia	81 19 47	Urola BHI	15 02 28

AEK

EHE	15 10 89	BESTERIK	
Udal Liburutegia	15 71 95	UGLE (Urolako gay-lesbia.)	273 posta
Loiolako Liburutegia	81 65 08	Xoxoteko aterpea	58 10 07
Uztarria Kultur Koor.	15 03 58	Hitzeko Euskara-Komunikazio Zerbitzuak	665 72 39 79

Farmaziak gauez ▶ azaroa

5-17-29

Aranburu (Azpeitia).
943 81 13 50

1-6-7-18-30

Beristain (Azpeitia).
943 81 19 49

2-3-16

Etxebeste (Azpeitia).
943 81 59 74

3-15-20-21

Garcia (Azpeitia).
943 81 12 74

4-16


Zulaika (Azpeitia).
943 15 03 34

8-9-24-25-26

Gisasolo (Azkoitia).
943 02 65 15

10-11-12

Azpiazu (Azkoitia).
943 85 29 89



Ateak zabalik ▶

UDALETXEA

▶ Asteguna:	09:00-13:30
▶ Larunbata:	09:00-13:00

UDALTZAINGOA

▶ Egun osoz irekita egoten da

ANBULATEGIA

▶ Egun osoz irekita egoten da

IGERILEKUA

▶ Astelehena:	14:00-21:00
▶ Beste astegunak:	07:00-21:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00, 16:00-20:00
▶ Kanpoko igerilekua:	Ekaina arte itxita

KIROLDEGIA

▶ Astelehena:	09:00-13:00, 15:00-21:00
▶ Beste astegunak:	15:00-21:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00, 16:00-20:00

UDAL LIBURUTEGIA

▶ Astegunak:	10:00-13:00, 16:00-20:00
▶ Udan (abuztuan itxita) eta Gabonetan:	astegunetan: 09:00-13:00

ZAPO TXOKO

▶ Asteartea-ostirala:	17:00-20:30
▶ Larunbata:	16:00-20:30

ZABOR BILKETA.

Egunero zabor asko sortzen da etxeetan, eta hori guztia jaso ere egin behar izaten dute zabor biltzaileek. Astelehenetik larunbata bitartean goizeko 06:00etatik 12:00etara bitartean aritzen dira lan horretan. Lan eskerga egiten dute.

Garraioa ▶

ALDALUR

85 27 18

EUSKO TREN

902 54 32 10

GUIPUZCOANA

85 11 59

PESA

21 26 99

PIPER ELK.

85 25 87

TAXIAK

81 13 07



ZURE BEREZKO DOTOREZIA JANZTEN DUGU

LURRINAK - BITXIAK - MAKILLAJEAK - OSAGARRIAK

gotain



LURRINDEGIA

ERDIKALEA 3, AZPEITIA
TEL. 943 814 358

**BILATZEN DUZUNA BILATZEN DUZULA,
BETI GAUZA BERA AURKITUKO DUZU**

AUKERARIK ZABALENA

Era guztietako produktuak eta zerbitzuak, diseinuak eta prezioak. Nahi dituzun bezalako baxerak edo mahai-tresnak, ateentzako heldulekuak, gortinentzako barrak, tiradera-eskulekuak, sukalderako osagarriak eta etxerako eta brikolaje-lanetarako behar duzun guztia... **etxeberrian** den-dena aurkituko duzu. Baita gure profesionalen arreta eta laguntza osoa ere.



**eTxe
Be
RRia**
Brikolajea & Etxea

GARMENDIPE KALEA, 1 (futbol-zelaiaren aurrean) • 20730 AZPEITIA

BADUZU NON AUKERATU



mantangorri_{rekin}



Zinema etxean

8 DVD
euskaraz

urriaren **23**tik aurrera
asteburuetan BERRIAREKIN

1. Ipar Haizearen Erronka
2. Annaanna
3. Martina eta xagutxoak
4. Baloia
5. Ipar Haizearen Itzulera
6. Rudy Txerritxo
7. Yolanda eta Arroza Beltzaren Sekretua
8. Gezi Urdina



+ 2,90 €

Babeslea:



Euskaldunok behar dugun

berria

ESTITXU ELDUAIEN ▶ 'matraka' gazte aldizkariko arduraduna

“Nik 27 urte ditiat eta oraindik gazte sentitzen nauk”

▶ Testuak: Kepa Urbieta ▶ Argazkiak: Ion Aranburu



TXIKITAKO AMETSA.

Estitxu Elduaienek ume garaietan neurriekin egiten zuen ametsa: “Txikitako neure ametsa handia izatea zuan. Beti izan nauk txikia, eskolako jaialdietan-eta beti lehenengo iladan jartzen nindutean. Hazi egin nahi nian, baina ez nauk asko aldatu”.

Berria-k gazteentzako astekaria atera du lehen aldiz: *Matraka*. Estitxu Elduaien azpeitiarra arduratzen da astekaria zuzentzeaz.

Zergatik *Matraka* izena?

Nahiz eta izen hori aipatu eta orokorrean esanahi batekin identifikatzen den, eskandalo edo buila, badituk beste batzuk ere, neska-zahar, lotsagabe esaterako. Guk bi ezaugarri horiek nahastu nahi genituan.

Hi, *Matraka* buru. Agian, matrakazalea haizelako?

Horri ezin banik erantzun. *Berria*-ko zuzendariak hartutako erabakia duk. Niri arduradun izatea nahi nuen galdetu zidatenean baietz erantzun nian. Beldurra ere banean, erronka bat zelako baina proba egin gabe ezetz esatea koldarkeria hukek. Baina ez zakiat zergatik aukeratu ninduten.

Nolako funtzionamendua izango din astekariak?

Idea besterik ez zenean proiektua gauzatzeko prest egongo ziren gazteak aurkitzeko aukerak tanteatzen hasi gintuan. Unibertsitateetan zaudek taldeak, baduk bestelakorik ere, eta bakoitzak koordinatzaile bat dik. Ni koordinatzaile horiekin jartzen nauk harremanetan, eta lanak banatzen ditiagu. Talde bakoitzari eginkizunak jarri eta gero horiek arduratzen dituk lanak egiteaz.

Gazteak zuzentzeko ardura ez al da zaila izango?

Ez pentsatu. Ni ere ez nauk zaharra, ustez. Sortu den taldea gus-tura eta gogoz zagok. Orain arte-an ondo zoak, eta hutsegiten badugu ere dagoen ambienteak umorez hartzen lagunduko ziguk.

Eta 28 urteko gaztea naizela esaten badinat.

Sinesten diat. Nik 27 ditiat eta gazte sentitzen nauk. Azken batean, karnetea agertzen den zenbakia ez dik ezertarako balio. ◀



gida baimena EUSKARAZ?

Atera al daiteke gida baimena euskaraz? Ba al dugu euskaldunok hura euskaraz ateratzeko aukerarik? Tamalez, oraindik zaila da edo ezinezkoa

► Testuak eta argazkiak: Ihintza Agirretxe

Hemezortzi urte eginda, jendea abiadan joaten da kotxeko gida baimena ateratzeko matrikula egitera, auto eskolara. Baina iritsi eta komeriak izaten dira. Liburuak hartu eta: *"Si usted va por una vía interurbana con un vehículo de tracción animal..."* edo *"si en una carretera de dos carriles de líneas discontinuas..."* bezalako esaldiak irakurtzean laster aldatzen da baten aurpegia. Gida baimeneko azterketak Donostian, Beasainen, Villabonan eta Azpeitian egin daitezke —astero izaten dira, bai teorikoa eta baita praktikoa ere—. Normalena erdaraz ateratzea dela diote Azpeitian dauden bi auto eskolatako arduradunek.

► **ZAILTASUNAK.** Gida baimena euskaraz ateratzeko zailtasunak daude, eta, arrazoi bat, esku-menak Espainiako Gobernuak dituela. Gobernu horrek ez du ezer egiten testuak eta testak euskaratzeko, eta, beraz, ez daude. Test batzuk ba omen dira euskara hutsean, baina gutxi, eta oso zai-

Bota lasai ▶ (www.uztarria.com/euskara)

Trafikoaz galdezka

Udalak enkargatuta, mugikortasun jasangarriaren plana dela-eta, trafikoari buruzko galderak egiten ari dira Azpeitian, eta niri gaur batzuk egin dizkirate Hartzubiko errotondian. Ireki dut kotxeko leihoa, eta galderak egiten hasi den neska, erdaraz. "Euskaraz mesedez", esan diot. "*Es que no se, eh, espera... ondo*". "Ba nik euskaraz entzun nahi ditut galderak". Hasi da... bere erara hasi ere: desastre hutsa (pentsa, halako batean berak: "Zenbat aldiz egiten duzu?"...). Erdaraz ere jardun du. Udaleko agintariok eta udal euskara teknikaria, horrelako lanetarako ere langile euskaldunak be-

harko dira ba! Ez esan ez dakit zein enpresari enkargatu diozuela (Kataluniakoa dela uste dut) eta ez duzuela erantzunkizunik.

▶ Peru

Iritzi horren erantzuna

Eta hori ez da guztia

Nik hori egiten dut beti, bai telefonoz deitzen didatenean zerbaitetarako, baita hainbat inkesta egiten dizkidatenean ere. Lehenengo galdera egin baino lehen esaten diet euskaraz bakarrik nahi dudala erantzun, eta, hala ez bada, akabo. Eta hori bera egin izan dut Azkoitiko Maxi Eroskin ere, inoiz inkestaren bat egitera etorri zaizkidanean. Beti erdaraz iza-

ten dira eta, askotan erreklamatu izan dut arazo honengatik.

▶ Mikel

Kimetzek web orria euskaraz

Gogoan dut nola salatu zuten *uztarria.com*-en Kimetz ile apaindegiak euskarazko web gunerik ez izatea. Ikusi, eta bide batez eman zure iritzia.

▶ Aitor

Igerilekuan euskararekin

Pertsonak ezagutu gabe kritikatzek ez du ez hanka eta ez buru, gauzak ezagutu gabe kritikatzek ez duen

bezala. Igerilekuan, momentu puntualetan izan ezik, beste momentu guztietan ez dugu ez euskal irratirik eta ez erdal irratirik jartzten, musikan oinarritutako irratia baizik. Propaganda egin zaleak ez bagara ere, esan egingo ditugu zeintzuk diren: EITB irratia eta Kiss FM. Horietan, era guztietako musika jartzen dute, eta horregatik jartzen ditugu, musika berdina entzuten egotea ez dugulako uste inoren mesederako denik. Euskarazaleak izatea eta euskal musikaren alde egoteak ez dugu uste euskal musika bakarrik entzutera mugatu behar gaituenik. Gomendioak entzuteko prest gaude beti, baina ez zentzurik gabeko kritikak.

▶ Igerilekuko langileak



Ikasleak

Hasieran ez da erraza izaten inorentzat testu liburuetan eta testetan jartzen duena ulertzea. Baina egunak aurrera doazen heinean, gazteleraz gutxi dakiena ere izen tekniko horiekin ohitzen joaten da, eta hasierako zailtasun hori gutxituz joaten da. Izena ematean ikasle askok galdetzen dute euskaraz ateratzeko aukerarik dagoen, baina azkenean gazteleraz ateratzen dute guztiak. Azpeitiko bi auto eskoletan orain artean inork ez omen du euskaraz gida baimenik atera.

lak gainera. Badirudi beraz, esku-menak Espainiak dituen bitartean, ez dela egoera asko hobetuko euskaldunontzat.

▶ AZTERKETA PRAKTIKOA.

Azterketa praktikoa egiteko zorte kontua da dena. Aztertzaileak, euskaraz dakitenak eta soilik gazteleraz dakitenak daude; beraz, zortearen esku gelditzen da azterketa zein hizkuntzatan egin. Hemen, azterketa teorikoan bezala, paper bat bete eta ezin da hizkuntza hautatu, tokatu egiten da. Beraz, zortea izan behar da euskaraz gidatzen ikasteko. ◀

Alkoholiko Anonimoek talde euskalduna sortu dute

Alkoholiko Anonimoetako taldeak 2003ko iraila arte gazteleraz bakarrik funtzionatzen zuen, Olatz taldea bakarrik zegoelako. Iazko irailean, ordea, Iraurgi taldea sortu zuten Azpeitian, eta talde hori euskaraz funtzionatzen duen bakarrenetakoa da. Iraurgi taldeko kide Anttonen hitzetan, "bileratan barruan ditugun gauza asko azaltzeko beharra duzu, eta ama hizkuntzan ezin baduzu egin, ez zara ondo moldatzen". Iraurgi talde horrek, ordea, badu, euskaraz beren arazoak azaltzeaz gain, beste ekimen bat esku artean. Alkoholiko Anonimoen elkarteak orain artean argitaratu duen material guztia erdaraz argitaratu du, baina Iraurgi taldeko kideak material hori euskaratzen ari dira. Jadanik bileretan erabiltzen duten material guztia euskaraz daukate.



Soreasu 2-an dute egoitza, behean.

Euskararen gorabeherak



GORA. Erdarazko seinalea falta da

Urte asko pasatu ditu Loiola bidean "Peaton circule en carretera por la izquierda" kartelak. Orain falta da. Ez da deus euskaraz, baina erdara hutsean ere ez.



BEHERA. Gasolindegia

Basarteko gasolindegian horrelako kartela aurki daiteke, erdara hutsean. Gasolina garesti dago, eta euskara ere ez dago merkeago zenbait lekutan.



Behatokia (euskararen eskubideen urraketak salatu ahal izateko telefono zenbaki berezia)

 902 19 43 32

Eskubidea

“Eskubidea dugu auziperatze prozesuak euskaraz izan daitezen, baita epaiketak ere, epaile, abokatu, fiskal eta idazkari judizial euskaldunekin”

Euskal Herrian Euskarazen 'Bideak' eskuliburutik hartua; Uztarrarian dago edonoren eskura

Albistea

Izen-ematea oraindik zabalik AEKn

AEKren Mikelats euskaltegian oraindik ere badago euskara ikasi edo hobetzeko aukera. Nahiz eta ikasturtea hasia egon, oraindik ere eman daiteke izena. Hiru eskaintza dituzte; euskara ikasten hasteko, euskara hobetzeko edo EGA ateratzeko ikastaroak izango dituzte ekainera bitartean.

Etorkinentzat ikastaro bereziak Patronatoan

Udal Euskara Patronatoan 130 ikasle inguru izango dituzte ikasturte honetan, hamar talde ezberdinetan banatuta. Talde berezi bat ere sortu dute; etorkinentzako berezikisortutakoa, hain zuzen ere. Talde hori osatzen duten 15 etorkinei euskararen oinarritzko ezagutza emateaz gain, herria eta ohiturak ezagutzen ere laguntzen diete.




www.lasao.com



prest...
zoriontsu izateko





Santi Lazkano Kirolak

Jose Artetxe, 1 Tel./Faxa: 943 81 16 50

ODONTOLOGI OROKORRA

- > Bideo bidezko diagnostikoa
- > Erradiografia digitala
- > Hagin-ateratzeak (azkenaginak...)
- > Endodontzia
- > Peridontzia
- > Garbiketa
- > Aho erreabilitazioa

HORTZ KLINIKA
Antonio Rafaniello
389 Kolog.
Enparan 8 - 1 Tel.: 943 81 67 36

ODONTOLOGI ESTETIKOA

- > INPLANTEAK
- > Koroak
- > Ahoko zubiak
- > Karilak
- > Hortz zuriketa
- > Protesi finkoak eta mugikorak
- > Odontologi tratamendu integralak

Urola-Kostako
hitza

ekarri GILTZA

errazago banatzeko
azkarrago jasotzeko



UZTARRIaren egoitzara, Julian Elorza 4, beheera